

MARIANA TELLO, antropologoa:
«Desagertuen mamuek, izutzeaz gain,
interpelatu egiten gaituzte» > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zer, nola, zergatik

PELLO OTXANDIANO > 11

2018ko irailaren 29a | XII. urtea • 588. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

GORBEIAKO
LARREAK, NARO
JARRAITZEKO
PREST > 12 Santi YANIZ



**Mariana Tello Weiss, Argentinako
desagertuen mamuez** 04

**Maien Sugearen Erreinua sen
handiko estrategiaz gailendu
zenekoa** 08

**Gorbeiaiko artzainen iragana,
oraina eta geroa, dokumental
batean** 12

**Lehengoan ikusi nuen adiskide
hori** 16

**E.lkarrizketa: Lourdes Perez eta
Raul Marcos** 22

Sarean 26

**In fraganti: Ainhoa Abinzano eta
Rosa Maria Rodriguez** 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Armen
negozioan ere aldaketak eragin
daitezke
- 10 **Ula Iruretagoiena:** Euskal
lurraldea
- 11 **Pello Otxandiano:** Zer, nola,
zergatik
- 18 **EXPRAI**
- 19 **Itzea Urkizu:** Pedal kolpeka
- 19 **Koldo Sagasti:** Urtaranen
arrain-oroimena
- 20 **Beñat Gaztelumendi:**
Fikzioaren alde
- 21 **Joana Garmendia:** Gaur zortzi
- 30 **Amaia Urrejola:** Klitoriaren
ablazio psikologikoa



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Armen negozioioan ere aldaketak eragin daitezke

Ekonomiaren ikuspuntutik armak merkantzia gisa oso bereziak dira. Batzuek inbertsio moduan ikusten dute, baina armek ez dute beste ezer ekoizten. Segurtasuna sortzen omen dute; erabilerak gerra, heriotza eta txikizioak eragiten ditu. Kasu batzuetan lurralde baten konkista ekar dezake gerrak, edo norberaren lurraldearen galera. Finean, ezer produktiborik ez. Gainera, erabiliz gero, azkar higatzen eta hondatzen dira. Beraz, inbertsioa baino kontsumitzeko gaia dirudite armek. Horregatik, armen ekoizpena negozio mamitsua da: erraz kontsumitu eta azkar hondatzen diren merkantziek etekin handiak ematen dituzte.

Zentzu horretan, inork gutxi utzi nahi du negozio biritu hori. Are gutxiago, erosteko ahalmen handia duten bezeroak haserrearazi. Horien artean, jakina, Saudi Arabia nabarmentzen da. Stockholm International Peace Research Institute-k (SIPRI) publikatu dituen datuen arabera, munduko bigarren arma inportatzaile handiena da. Bere zatia %10a da. Aurretik India bakarrik koka-tzen da, munduko erosketen %12rekin. Eta hurrengoa Egipto da, %4,5arekin.

Saltzaileen aldetik, zerrenda interesgarria agertzen da. Amerikako Estatu Batuak dira saltzaile handiena, munduko salmenten %34 kontrolatzen dituzte. Ondoren, Errusia. Bere zatia ere ez da txikia, %22koa. Hurrengoak Estatu frantsesa (%6,7), Alemania (%5,8), Txina (%5,7), Britainia Handia (%4,8) eta zazpigarrena Estatu espainola, Israelekin parekatuta (%2,9). Argazkia ezin adierazgarriagoa da: Estatu garatuenak arma saltzaile nagusiak dira; garapen bidean dauden estatuak, aldiz, erosle nagusiak. Kultura, demokrazia eta balioak aldarrikatzen dituzte estatu horiek, baina gerrarako tresneria zabaltzen dute mundu osoan. Gainera, negozio horretan ez dute atzerapausorik eman nahi. Joan den astean, AEBek Txinaren kontra zigorrak ezarri zituzten, honek Errusiari ehiza-hegazkinak, Su-35

eta S-400 abioien aurkako misilak, erosteagatik. Ematen du AEBek nazioarteko zigorrak, besteak beste, merkaturia mantentzeko tresna gisa erabiltzen dituztela.

Errusiarrek esaten duten moduan, «vodka ekarri, edateko aitzakia topatuko dugu». Behin armak edukita erabiltzeko aitzakia erraz topatzen da. Eta egindako erosketak kopurua kontuan harturik, Saudi Arabiak laster topatu zuen Yemenen zioa pilatutako armategia gastatzeko. Baina bertan egindako sarraskiak, nahiz eta oihartzun handirik ez izan, iritzi publikoraino iritsi dira. Horrek arma negozioaren gainean presioa sortu du. Presioa bai, baina momentuz ez du eragin handirik izan. Estatu espainoleko Defentsa ministroak 400 bonbaren salmenta bertan behera uztea pentsatu zuen. Kalteak oso handiak izango ziren beldur, oster, atzera egin zuen. Alemaniak ere hori bera egin du. Joan den astean Merke-

Errusiarrek esaten duten moduan, «vodka ekarri, edateko aitzakia topatuko dugu». Behin armak edukita erabiltzeko aitzakia erraz topatzen da. Saudi Arabiak laster topatu zuen Yemenen

len Gobernuak Saudi Arabiarentzako salmenta handi bat onartu zuen, Yemengo gerran aritzen diren estatuei ez zizkiela arma gehiago esportatuko esan eta gero.

Bada munduan estatu bat Saudi Arabiari armak saltzeari utzi diona: Kanada. Sipri-ren datuen arabera, 2015ean 111 milioi Tiv (arma ezberdinak eratzeko unitate berezia) saldu zuen, eta 2017an, 2 besterik ez. Presio sozialak eta borondate politikoak eragin dute aldaketa. Beharbada horregatik, aurtengo udan, funts gutxiko aitzakia erabiliz -txio bat-, Kanadarekin zituen harremanak apurtu ditu. Saudi Arabiak ez ditu bazkideak nahi, mendekoak baizik, Estatu espainolaren eta Alemaniaren modukoak. Kanadak beste bide bat aukeratu du. •

«Desagertuen mamuek, izutzeaz gain, interpelatu egiten gaituzte, zerbait egitera behartzen gaituzte»

Mariana Tello Weiss argentinarra antropologoa eta giza eskubideen ekintzailea da. Bere ama, Margarita Azize Weiss, Montone-ros talde armatuko kidea izan zen. 1976ko uztailaren 12an hil zuten Marianak bederatzi hilabete besterik ez zituenean.

Tucumanen bizi ziren. Urtebete lehenago joan ziren bizitzera Tucumanera, errepresio-tik ihesi. Lanetik alaba txikia besoetan itzultzean, etxea militarrez eta poliziez inguratuta zegoela ikusi zuen Azizek. Atxilotua izateari uko egin zionean, metrailadore batekin tiro egin zioten. 25 urte zituen. Etxean Montoneros taldeko beste kide bat ere bazegoen, Juan Carlos Aguirre. Hura ere hil egin zuten. Mariana operazioan parte hartu zuten militarrek bahitu zuten, eta Margaritaren gorpua hobi komun batera bota zuten. Mariana txikia handik hilabete batzue-tara aurkitu ahal izan zuten aita-ona-amonek.

Betidanik jakin izan du Marianak ama nor zuen; «egian hazteko zortea izan nuen», azaldu du GAUR8rekin eginiko elkarrizketan. HIJOS taldean militatu du 1996tik. Tucumana-nera 1998ean itzuli zen lehen aldiz, amaren heriotza dela-eta egindako epaiketagatik.

Demokrazian egonik ere, Antonio Domingo Bussi erre-presorea zen oraindik ere Tucumaneko gobernadorea. «Nire amaren eta beste askoren hiltzailea Gobernuaren Etxean zegoen. Poliziak ez zigun baimendu egoitzara hurbiltzen. Erabat militarizatuta zegoen

hiri batean nengoen, hori izan zen behintzat nire sentrazioa. Poliziak txakurrekin zein zaldi gainean zeuden, eta tankeak ere ez ziren falta kalean».

Biolentzia politikoan oinarritu ditu bere ikerketak Mariana Tellok. Tesia, Argentinan 70eko hamarkadan egon ziren talde armatuei buruz egin zuen. Oraindik ere tabua den gaia da, inork gutxi hitz egin nahi du herrialdean horri buruz. Diktadura garaitik bizirik irtetea lortu zutenekin lan egin du urteotan guztietan.

Cordobatik 15 kilometrora den La Perla atxiloketa zentro klandestinoan ere aritu da, ikertzaile eta bisita gidari gisa. Egun guztiontzat zabaldua dagoen museo bat da. Memoriaren eraikuntza eta transmisioa du helburu. Nahiz eta haraino iristea zaila izan, ehunka bisitari dituzte egunero-egunero; bigarren hezkuntzako ikasleak, turistak, herritar taldeak, sindikatuetakoa kideak, gizarte zibileko ordezkariak...

Uztailean, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan parte hartu zuen Mariana Tellok. Donostiako Miramar jauregian egindako “Cuerpos incómodos: Violencia masiva, fosas comunes y necropolítica” kongresuan esku hartu zuen hizlari gisa.

Zerk eraman zintuen desagertuen mamuak aztertzeraz?

Egia esan, hori ez da nire ikerketaren mamia. 2001etik memoriaren eraikuntza eta gatazka soziopolitikoa izan ditut aztergai. Desagertuen senideei buruzko ikerketa batean esku hartu nuen laguntzaile gisa. Ondoren, Argentinan egondako talde armatuen eta ekin-tzaileen memoriak nahiz espe-

rientziak jaso nituen tesian. Azken bederatzi urteotan kontzentrazio-esparruetatik bizi-rik atera zirenen lekukotasu-nak bildu ditut. Ikerketa horien guztien erdigunean mamuen afera atera zen modu batera edo bestera; memoriaren, ikararen eta beldurra-ren beste adierazle bat da.

Mamuak lekukotasun anitzetan azaltzen dira, batez ere, diktadura garaian atxiloketa zentro klandestinoetatik gertu bizi zirenen ahotik, baita garaian soldaduska egiten ari zirenen edo eta ikasle soilak zirenen soldaduen ahotik ere. Baina, beti *off the record* hitz egiten dute gaiari buruz. Bi multzootako kideak heriotzatik oso gertu zeuden, eta, erre-presioan modu zuzenean esku hartu ez bazuten ere, gertatzen ari zenaren jakitun ziren. Ankerkeriaren ikusle ziren; bizilagunek, esaterako, desagertuen gorpuak eramaten zituzten kamioiak ikusten zituzten gauetz. La Perlaren kasuan errausten zituzten gorpuzkien usaina ondoko zelaietatik barreiatzen zen. Behin, nerabe batek lurretik ateratzen zen esku bat ikusi zuen. Urte luzez isilpean gorde zuen ikararen ondorioz.

Adibide pare bat jarriko dizkizut. Guerreron, Jujuy probintzian, izen bereko atxiloketa gune klandestino bat egon zen. Hiru etxek osatzen zuten. Horietan, desagertuak preso edukitzeaz gain, torturatu egin zituzten. Egun lekua kanpaleku bat da. Sotoak hesitu egin zituzten. Bada, bizilagunek horietatik datozen garra-siak entzuten dituztela diote. Bertan torturatu zituztenen arimak direla diote, sotoak itxi zituztenetik preso daudelako.

MARIANA TELLO WEISS

ANTROPOLOGOA

Mariana Tello Weiss antropologo eta ekintzaile argentinarra da. Biolentzia politikoa aztertu du, eta, horrekin lotuta, baita diktadura garaiko desagertuen mamuen inguruan dauden kontakizunak ere.

Ainara Lertxundi

Beste adibide bat. Carlos *Charlie* Moore D2 atxiloteta gunean denbora gehien egon zen atxilotu-desagertua da. “Cordobako gestapo” bezala ezagutzen da gunea. 1980eko hamarkadaren hasiera arte eduki zuten preso bertan. Miguel Robles poliziak Moore Ingalaterran elkarrizketatu eta “La Búsqueda” liburua idatzi zuen. Liburuaren pasarte batean, honakoa deskribatzen du Moorek: «Zaratak, kolpeak eta garrasiak entzuten hasi ginen. Gauza arraroak gertatzen hasi ziren, batez ere, ondoko hegalean. Gauzez inor ere ez zen bertara gerturatzen, bertan arima bat zegoela zioten. *La puta vagabunda*, *La puta vagabunda barata* edo *La bruja* deitzen zioten. Gauza bat esango dizut, Miguel, Ingalaterran Geologia ikasi nuen eta zientzia gizona izan naiz betidanik. Sekula ez nuen pentsatuko mamuetan sinetsiko nuenik, baina, bene-benetan, leku nazkagarri horretan soinuak entzuten ziren gauzez». Soinuak eta zaratak entzuten zituzten garai horretan, Moore zentroan zen atxilotu bakarrazen. Bera eta bere bahitzaileak zeuden soilik bertan. Ikaratuta soinu arraro eta beldurgarriok entzutean, airera tiro egiten zuten poliziek. Kontakizun bixia da oso, normalean atxilotu ohiek ez baitute mamuei buruz hitz egiten.

Diktadura garaian Buenos Airesko ESMA beldurgarrian zeuden ikasleek kontatzen zuten, gauzez bertatik ihes egin nahi zuen emakume bat ikusten zuten, odolez zikindutako kamisoia jantzita. Irudia benetan beldurgarria zela zioten. Garita batean zegoen soldadu gazte batek bere buruaz beste egin zuen ezin zuelako jasan emakume horren irudia.



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ/ FOKU

Beste ikasle bat igerilekuan hilik aurkitu zuten. Bainatzen zen bakoitzean hondotik zerbaitek tira egiten ziola sentitzen zuela kontatu zion kide bati. Egun batean, igeriketa klasetik atera zirenean, bera pixka bat gehiago geldituko zela esan zien ikaskideei. Aldagelara joatean ez zenez, haren bila joan eta igerilekuaren hondoan hilik topatu zuten.

Kontzentrazio eta tortura zentroak izandako guneetatik gertu bizi direnek ere hitz egiten dute mamuez. Cordobako

San Vicente auzoko bizilagunek oin-bilurrez lotutako mamuen agerraldiez, zuhaitz artean agertzen eta desagertzen diren itzalez eta garrasiez hitz egiten dute San Vicente auzoan Campo de la Ribera atxiloteta zentro klandestinoa egon zen, baita hilerri bat ere. Mamuak bertan hil zituztenen arimak direla diote. Horrelako ehunka lekukotasun jaso ditut. Pentsa, hamar urte eman nituen ikerketa egiteko.

Aitortu beharra dut zalantza handiak izan nituela gaia nola

planteatu erabakitzerakoan, horrelako gaiak ikuspuntu positibista batetik jorratzera ohituta baikaude. Hala, etengabe ko borrokan nengoen nire izaera positibistarekin.

Nola hitz egin desagertuen mamuei buruz desagertuen seriotasunik kendu gabe? Ondo egiten al dugu mamuei buruz hitz egiten, are gehiago Argentinan ukapen politika bat indarrean dagoenean? Argentinan desagertuak sakratuak dira giza eskubideen esparruan eta fribolitate orotatik ihes egin nahi

nuen. Mamuei buruz hitz egitea badirudi tontakeria dela, horregatik denbora behar izan nuen horiei buruz idazteko, ez zuen gaizki ulerturik egoterik nahi. Behin zer gertatu zen ikertuta eta epaituta, baina, desagertuen dimentsio hau aztertzen has gaitzke, nahiz eta desagertuen arimak sentitzen dituztenen testigantzak balio juridikorik ez izan.

Beti bizirik atera zirenekin lan egin dut eta mamuei buruzko istorio asko ezagutzen nituen. La Perlan egunero sei orduz lanean egon ondoren, kontakizunok beste modu batean ulertzen ditut. Ematen ditudan hitzaldi ia gehienetan galdetzen didate ea noizbait mamuren bat ikusi dudana. Erantzuna ezezkoa da, baina egunero han egonda, gauza mordoa sentitu nituen; hotza, zaratak...

La Perlan lan egin duzu luza-roan, bai ikertzaile bai gidari gisa. Nola deskribatuko zenuke esperientzia?

Argentinan, diktadura garaian, 600 bat atxiloteta gune klandestino egon ziren: polizia etxeetan, kuartel militarretan, ospitaleetan, bestelako eraikin publikoetan... "Klandestino" hitzak, baina, ez du esan nahi jendeak horien berri ez zuenik. Atxilotu gehienak ez ziren bizirik atera. Haien gorpuak desagerrarazi egin zituzten; batzuk hilerrietan kokatutako hobi komunetan lurperatu zituzten, beste batzuk erraustu egin zituzten, beste batzuk bizirik baina drogatuta hegazkinetatik itsasora jaurti zituzten... Horrenbestez, hildakoak edonon daude.

La Perla gune horietako bat izan zen. 17.000 hektarea dituen eremu militarra da. Hiltzeko zentro erraldoia izan zen, "Argentinako Auschwitz".



1976tik 1978ra zabaldua egon zen. Pertsona gutxi batzuk besterik ez ziren bizirik atera bertatik. Lehenengo sei hilabeteetan, 2.000 eta 2.500 pertsonen artean desagertu ziren bertan. Tamalez, ez dakizkigu horien guztien nortasunak. Bizirik atera ziren gutxi horiei esker dakigu dakiguna. Egun memoriarako gune bat da.

Ni 2008an hasi nintzen bertan lanean, oraindik museoa ez zenean eta gela bakoitza zertarako erabiltzen zuten adierazi gabe zegoenean. Gauez, hogeitazko poliziek zaintzen dute. Goiz batean, iritsi bezain laster, horietako bat gerturatu zitzaidan. Gauero, 20.00etan, erronda egitean emakume baten oihuak entzuten zituela eta txakurrak atzeraka egiten zuela esan zidan. «Gela horretan zer zegoen?», galdetu zidan. Nik erantzun baino lehen, tortura gela ote zen galdetzen ari zen. «Emakumeren bat hil zuten bertan?», jarraitu zuen. «Bai, dezente», erantzun nion nik, «baina bada go bereziki krudela den pasarte bat. Eguberri gauean, militarrek

«Behin zer gertatu zen ikertuta eta epaituta, desagertuen dimentsio hau aztertzen has gaitzke, nahiz eta desagertuen arimak sentitzen dituztenen testigantzak balio juridikorik ez izan»

berandura arte torturatu zuten emakume bat. Familiarekin afaltzera joateko berandu egin zitzailela ohartzean, emakumea hiltzorian eta bakarrik utzi zuten tortura mahaian. Hurrengo goizean, beste atxilotu bat sartu zen gelan eta hor topatu zuen, azkenetan zela. Izena galdetu zion, eta, erantzun ostean, jada hil zitekeela sentitu zuen».

Poliziak neska horren argazkirik ote zuen galdetu zidan. Eman edo ez zalantzatan egon nintzen. Azkenean, desagertuen argazkien artetik emakume horrena erakutsi nion. Esku artean hartu eta zerbait xuxurlatu zion argazkiari. Ondoren, itzuli egin zidan. Barkamena eskatu behar ziola azaldu zidan. Oso une gogor eta disruptiboa izan zen. Diktadura ezagutu ez zuen gazte bat zen, polizia bat. Bi parametro horietatik La Perlan gertatutakoak eragin zizkion emozioez pentsatzera eraman ninduen.

Mamuek, beldurtzeaz gain, interpelatu egiten gaituzte. Errua sentiarazten digute eta zerbait egitera behartzen gaituzte. Baina, zer egin zezake-

ten ESMako ikasleek atxilotu-desagertuen oinazearekin? Kamisoiak odolez zikinduta zuen emakumearen irudiak oinazearekin eta muturreko biolentziarekin elkarbizitzaren eta norberaren arduraren arteko tentsioa sinbolizatzen du. Oinaze horren aurrean hartzen dugun jarrerak lekuko, salatzaille edo konplize potentzial bihurtu gaitzake.

Nola hartzen du jendeak desagertuen auzia lantzeko ikuspuntu hau?

Jendeak bere sinesmenen eta munduaz duen ezagutzaren arabera hartzen du. Batzuei, mamuen gaia zirraragarria iruditzen zaie; beste batzuei, ordea, ergelkeria hutsa. Batzuek ez dute deus ere esaten momentuan, baina, gero, zuregana gerturatzeko dira kontu kontari. Argentinako Forentse Taldearekin lan egin dut gorpuak lurpetik ateratzen, parametro erabat zientifikoak erabiliz. Baina gauza bat esango dizut: La Perlan nengoe-nean eta gaua iristen zenean, hotzikarak sentitzen nituen eta gela jakin batzuetara ez nintzen gerturatzen. Izugarrikeria ezagutzeko eta transmititzeko ez dago modu bakarra: pertsonak kontraesanez beteta gauden bezala, memoriaren transmisioa ere kontraesanez beteta dago.

Desagertuen gertatzen hasi zirenean, lehen garaietan, senideek mediumengana jo zuten, beraien seme-alabak non zeuden jakiteko. Energiaz beteriko guneak dira atxiloteta zentroak eta bakoitzak modu desberdinean bizi du hori. Diktadura zuzenean bizi izan gabe ere, senti daiteke lekuotan dagoen energia berezia. La Perlara bisitan etortzen diren ume eta gazteak aipatu nahi nituzke; normaltasunez jasotzen dituzte mamuen istorioak, aurreiritzi-

rik gabe. Askeagoak dira zentzu horretan. Goizero berrehun bat ikasle datoz eta arratsaldean beste horrenbeste, nahiz eta La Perla zelai baten erdian egon, hirigunetik urrun. Bisitok hezkuntza curriculumean sartuta daude, eta hori oso garrantzitsua da.

Horrelako leku batean egotearekin soilik, memoria aktibatu egiten da, memoria ez baita garai hori bizi izan zutenena eskusiboki. Modu batera zein bestera, guztiok dugu nolabaiteko harremana diktadurarekin. Belaunaldien arteko muga hori ezabatu egin behar dugu; gazteek ere badute diktaduraren berri, edo eskolan zerbait azaldu dietelako, edo familian entzun dutelako. Memoria iragana eta oraina da. Nola bihurtu zuten gerrillaria edo subertsiboa nazioaren etsai? Zer-nolako estrategia errepre-siboak erabiltzen dira egun? Horretan guztian pentsarazten die.

Cordobako Unibertsitatearekin eta unibertsitate pribatu-ekin hitzarmenak ditugu. Bisita pertsonalizatuak egiten saiatzen gara, ez baita gauza bera gunea ikasle talde bati erakustea edo familia bati. Bisitari bakoitzari, lekukotasunen zatiak jasotzen dituen txartel bat ematen zaio, bai gertatutakoa jakin dezan bai transmititu dezan. Erakusketak, kontzertuak, emanaldiak... ere antolatu ditugu.

Zure tesia, baina, talde armatuen gainean egin zenuen. Zer dela eta aukeratu zenuen gai korapilatsu hori?

Nire ama 1976an hil zuten Tucumanen. Nire historia propioa pixkanaka ulertzen joan nintzen, urteekin. Borroka armatuaren azalpena zulo ilun batean gelditzen zen beti.

*«Aitortu behar-
dut zalantza
handiak izan
nituela gaia nola
planteatu
erabakitzerakoan,
horrelako gaiak
ikuspuntu
positibista batetik
jorratzera ohituta
baikaude»*

Orain hortaz hitz egin daiteke, baina lehen ez, gai tabua zen. Zerbait esaten bazenuen, isiltzeko esaten zizuten, gerrillari baten alaba zinelako. Baina, zer esan nahi zuen “gerrillari” hitzak? 1997an, HIJOS taldean militatzen hasi nintzen; gure gurasoen legatua aldarrikatzea zen gure helburua. Gaia ikertzen hasi nintze-nean, talde armatuetan parte hartu zutenak elkarrizketatzea erabaki nuen. Jakin nahi nuen zerk eraman zituen borroka politikoa egitetik borroka armatura igarotzera. Eta nola ulertzen zuten bai norbait hiltzea bai hilik suertatzeko arriskua, ordainsari oso garestiak biak ere. “Zergatik” galderari baino, “nola” galderari erantzun nahi nion.

Estigmatizatua sentitu zara, beraz, gerrillari baten alaba izateagatik...

Inoiz ez nuen esaten nor izan zen nire ama, eta, noski, are gutxiago azaltzen nuen bere militantzia. «Haren alaba» izatea egozten zidaten. Duela gutxi arte ez nuen esan nire ama gerrillaria izan zenik. «Zerbait egingo zuen» esaldia maiz errepikatzen zen; egin ziotena justifikatzen du esaldi horrek, eta oso mingarria da. Biktimari errua botatzea estrategia errepikakorra izan da. Garrantzitsua da legearen alde izatea, kritikak egiten badizkiogu ere sarri.

Zergatik da tabua oraindik ere talde armatuei buruz hitz egitea?

Biolentzia tabu bat delako gizarte guztietan. Bosgarren mandamentuak «ez duzu hilko» dio. Biolentzia gaizki ikusita dago. Egin zuten aukera ulertzen badut ere, ez dut partekatzen. Tes-tuinguru historiko bakoitza ulertu egin behar da iritzi bat edo beste izateko.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek “La noche de los lapices” filma ikusten dute. Oso gordina den arren, beraien adineko ikasleei eta militantziari buruz hitz egiten du. Eskola garraiorako txartel bat aldarrikatzen zuten. Azken urteotan, 70eko hamarkadako militantzia bere egin du jende gehiagok; isiltasuna apurtuz joan da. Bizirik atera zirenak beraien militantziari buruz hitz egiteko gonbidatzen dituzte; hori ez zen lehen gertatzen.



MAIEN «TRONUEN JOKOA»

Estrategiarako sen handiz, azti jokatzuz, gailendu zen Sugearen Erreinua


📁 **ARKEOLOGIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Sinopsia: «Errege maia batek, maniobra politiko konplexuen bitartez, besteen kultur eta erlijio adierazpenez jabetuta, ezkontzak estrategia tresna bezala erabiliz, bere kontrolpean jarzen ditu inguruko herrixka eta hiri txikiak. Guztiokin indarrak batuz, sugeak egiten duen bezala, etsaiak asfixiatzen ditu, denak azpiratzeraino». Istorio eta azpijoko horien guztien sinopsia ikusita, badirudi “Tronuen Jokoa” telesail ezagunaz ari garela. Baina, egiazki, Guatemala iparraldeko La Corona oihanean, Belize eta Mexikorekin muga egiten duen Peten eskualdean, aurkitutako maien aldare bateko hieroglifikoaren tailla eta idazkiak dira, Sugearen Erreinuari buruzkoak.

Maien inperioa eta zibilizazioa gaur egungo Guatemala-ko baso tropikalen beheko lurretan kokatu zen. Bere botere eta eraginaren gailurra Kristo ondorengo VI. mendean iritsi zen. Maiak nekazaritzan, zeramikan, idazkera hieroglifikoan, egutegiak egiten eta matematikan nabarmendu ziren. Arkitektura monumental ikusgarria eta artelan sinboliko ugari ere utzi zituzten. Hala ere, Kristo ondorengo 900. urtean, bat-batean, harrizko hiri eta tenpluak egiteari utzi zioten, eta, oraindik ere, adituek eztabaidatzen jarraitzen dute ea zer gertatu zen, zergatik kolapsatu eta itzali zen Maien Inperioa.

Bada, aurkitu berri duten eta lehen aldiz publikoki erakutsia duten 1,46 metroko garaiera eta 1,2 metroko zabalera dituen kareharrizko harlauza batek argia ekarri du misterio

Guatemala iparraldeko La Corona oihanean aurkitutako aldare maia batek argia ekarri du zibilizazio haren misterioetara. Bere hieroglifiko eta idatziek erakusten dutenez, aliantzak josten zituzten erreinuen artean, sarri azpijokoak eginez eta komenentziazko ezkontzak hitzartuz lurraldeak konkistatu eta boterea eskuratzeko. Hala egin zuen Kaanul dinastiak edo Sugearen Erreinua.



hori argitzeko ahaleginean. Aldarea erraz asko datatu ahal izan dute: Kristo ondorengo 544. urteko maiatzaren 12koa da –maien hieroglifiko baten inskripzioa du-. Data horrek La Coronako subirano Chak Took Ich’aak erregearen agintean kokatzen du istorioa. Eta hor hasten dira, halaber, “Tronuen Jokoa”, George R.R. Martinen eleberri fantastikoa-
ren adaptazioa den telesailarekin konparazioak.

Inoizko obra ilun eta polemikoenetarikotzat hartzen den “Tronuek Jokoa” telesailak, Burdinaren Tronua konkistatzeko familia ezberdinen arteko borrokak kontatzen dizkigu. Zazpi urteren ondoren, 2019rako espero da beronen amaiera. Bada, hizpide dugun aldareak, maien inguruko eza-
gutza hutsune asko bete eta jakintza-
ren puzzlea osatzen lagundu duenak, antzeko borroken berri ematen digu.

MESOAMERIKAKO POTENTZIA


Aldarearen aurkikuntzak orain artean ezezaguna zen La Coronako errege bat identifikatzea ahalbidetu du, Kaanul erreinuko hiriburua zen Dzibancherekin lotura politiko estuak zituenak, baita ondoko El Peru-Waka hiriarekin ere. Zehazki, Chak Took Ich’aak du grazia erregeak.

Aurkitutako aldareak bi buru dituen sugea, La Coronako bi jaingo patroien irudikapena, oratzen erakusten du Chak Took Ich’aak erregea. Hieroglifiko eta irudiok egin aurretik erregeak El Peru-Waka hiriarren gaineko agintea zuela ere erakusten du. Zehazki, hiri horrek La Coronarekin bat egin zuen, bien artean Kaanul dinastia osatzeko, popularragoa den izenaz ezagutzen dena: Sugearen Erreinua.

Chak Took Ich'aak buru zuen Sugearen Erreinuren etsaietan amorratuena Tikal Erreinua zuen. Bada, Tikal Erreinuaren tenplu eta dorre ikusgarriak oraindik ere zutik mantentzen dira gaur egun Erdialdeko Amerikako oihanetan. Chak Took Ich'aak erregeak, baina, aurre egin zion, horretarako estrategia bikaina baliatuz: hiri txikiagoekin aliantzak josten maisu izan zen, eta, apurka-apurka, pazientzia handiz, Sugearen Erreinua Mesoamerikako potentzia bilakatzea lortu zuen. Eta helburu horri begira egin zituen akordio ezberdinen lekuko, aldarean bertan Sugearen Erreinuko printzesaren eta La Coronako Erregearen arteko ezkontzaren irudia jasotzen da.

Sugearen Erreinuak 562. urtean garaitu zuen Tikal Erreinua, eta, ia bi mendez, maiak nagusi ziren lur eremu oso handi batean agindu zuen. Bere izenak jakitera ematen duen legez jokatu zuen Sugearen Erreinuak: apurka-apurka bere etsaia zen Tikal Erreinua asfixiatu zuen.

Badaude, beraz, badaudenez, Sugearen Erreinuaren eta "Tronuen Jokoa" teleaileko Zazpi Erreinuen sorreraren artean antzekotasunak. Baina aldareak ez digu deskribatzen maien kulturarekin eta zibilizazioarekin zer gertatu zen, ez digu argitzen hurrengo kapitulurik. Horrenbestez, aurkikuntza honekin datu berriak bildu diren arren, maien zibilizazioaren gainbeheraren eta desagerpenaren inguruko misterioek bere horretan segituko dute. Hori bai, ondoren gertatutakoaz badago informazio apur bat, aldarean estrategia politikoak nola josten ziren ikusita, asko ikasten baita garai hartako politikaren



Beste orrialdean, aurkitutako aldare maia, Guatemalako Arkeologia eta Etnologia Museoan. Goian, Marcelo A. Canuto arkeologoa, La Coronako oihanean indusketa lanetan.
Johan ORDOÑEZ | AFP

eta lurraldea irabazteko borroken inguruan.

ESTRATEGIARAKO SEN HANDIA

Aldareak antzinako intriga bat argitzen laguntzen digu: maien erreinuen arteko gerretako garaipenak ez ziren beti konkista militarren eskutik etortzen, ez zegoen beti sarraskia eta gerra konkisten atzean. Hala, orain badakigu aldaketa ez zela beti egun jakin batean borroka-zelaian lortutako garaipen baten eskutik etortzen. Politikaren artea ezagutzen

zuten, azpijokoak, azti jokatzea ez zuten arrotz: estrategiarako sen handia zuten maien buruzagiek.

Hamarkadetan zehar landutako aliantza eta joko politikoekin, beste herrien kulturak bereganatzen eta lurraldeak konkistatzen bazekiten maien erregeek. Loturak estutuz, komenentziazko ezkontzekin, aliantzak formalizatzen zituzten hiri txikiekin, tokian tokiko jainkoak bereganatuz eta gurtuz. Bestela, bide militar hutsekin, ezinezkoa litzateke

La Corona bezalako erreinu bategen El Peru-Waka konkistatzea. Azken hori askoz ere boteretsuagoa baitzen militarki. Beste hitz batzuekin esanda: gerra batean Kubak Ameriketako Estatu Batuak garaitzea bezalako litzateke, Sobietar Batasunaren laguntzarik gabe, guztiz ezinezkoa.

Beraz, nola konkistatzen da Tikal bezalako maien hiri-estatu indartsu bat? Dinastia politiko bat landuz eta osatuz, inguruko hiri txikiagoekin aliantzak josiz, eta, poliki-poliki, garai hartan ia zerurainoko dorre eta tenpluak zituena hiri-estatu boteretsua inguratuz. Unea heltzen denean, sugeak egiten duen bezala, denak batera joaz harrapakina itotzeko. Azkenean, Kaanul dinastia edo Sugearen Erreinua Mesoamerikako jaun eta jabe bihurtzeko. Ez da telesail baten gidoia, maien hieroglifikoek kontatzen dutena baizik.

Aldareak ez digu maien zibilizazioarekin zer gertatu zen kontatzen. Hutsuneak betetzen eta puzzlea osatzen lagundu arren, bere horretan jarraitzen du oraindik ere misterioak

Nola konkistatu Tikal indartsua? Dinastia politikoak landuz, hiri txikiekin aliatuz, komenentziazko ezkontzekin, etsaia inguratuz unea heltzean, sugeak lez, harrapakina itotzeko



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Euskal lurraldea

Galdeketak bat. «Euskal lurraldea» hitzak aho-ratu, eta zer datorkizu gogora? Hitzon soinu-a non lekutzen zaizu, buruan ala gorputzean? Irudi jakin batera bidaiatzen al duzu? Horrela egin baduzu, lurralde hori erreala da edo espazio idiliko bat irudikatu duzu? Edo kontzeptu abstraktuak ekarri dituzu burura? Pertsonen aurpegiak gorpuztu dituzu? Orainean ala iraganean kokatu duzu? Bi hitzon arteko konbinaketan eta lehian, zerk irabazi du zure ulermenean, «euskal» hitzaren euskalduntasunaren identitate zentzuak ala «lurralde» hitzaren fisikotasunak? Joera identitarioarekin bat egin baduzu, «vasca» izeneko tipografiarekin idatzita irudikatu ote duzu? Gorria, zuria eta berdearekin zipriztindutako kontzeptua iruditu zaizu? Maila sinbolikoarekin zerikusian txertatu baduzu, euskal ikonografia zabalarik lotzeko gaitasuna izan lezakeela uste duzu?

Proba bat. Interneteko euskara-ingeles itzultzailean «euskal lurraldea» tekleatu eta «*basque country*» emaitza irakurtzen dugu. Jakin badakigun arren, ez duela adiera horrekin zerikusirik, aplikazioa «Euskal Herria» izenarekin nahastu baita. Deigarria izan daiteke, gainera, «*basque country*» irakurritakoan hitzen soinu-a ez zaigula arrotza egin, ez jakintza anglosaxoiaren barneraketa poliglota dugulako, baizik eta «*basque country*» euskal gobernuak lurralde-marka gisa

erabiltzen duelako –«*i am basque*» lema jeltzalearen bertsio gaurkotua–. Ildo beretik, euskal turismo agentziak «*basque-tour*» du izena, hortaz, gure gorputzean «*basque*» hitza etxe-ko gertatuko zaigu seguru. «Euskal lurralde» hitzek, berriz, oraindik ere ez dute konnotazio merkantilistik, *branding* egiteko «libre» dagoen izen horietarikoa da, eta izenaren funtzio sinbolikoa ez da kapturatua, bereganatua izan. Horregatik, «euskal lurraldea» hitz binomioa, baliagarria zaigu esanahiak eta iruditeriak eraikitzeko.

Gogoeta bat. Euskal lurraldea irudi askok osatzen dutela bistakoa den gauza da. Ez dago, hortaz, irudi bateratzailerik, ez eta lurralde zati bat bestea baino esanguratsua-goa denik ere. Euskal lurraldea *collage* moduan aurkeztu beharko litzateke, kostaldea, mendikatea eta lautadak, hiri eta herri bizitokiekin, industrialia eta landatarra; lurraldearen askotariko bizi esperientzia kontraesankorreireferentzia eginez. Hitzei batzuetan egokitu nahi diegun helburu handientsua baztertzera garamatza, ez baitu adostasun bat bilatzen, baina, bai, oster, amankomunaren joera. Dibertsitatean eta dinamikotasunean oinarritzean, akaso behin-behineko esanahiez jantzi eta atxikimendurik gabeko esangurekin eraiki beharko da euskal lurraldea. Ez da nolanahiko ariketa, identitatearekin loturiko adierak bahituak gelditzen direlako, hitzak estu bihurtzen ditugulako. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } Pello Otxandiano

Zer, nola, zergatik

Eguneko notizien menpeko gara inoiz baino gehiago, berehalakotasunaren esklabo. Informazioaren abundantzia honetan zaila da inportantzia zeri eman erabakitzea, lehen-tasunak finkatzea, egiazkoa eta *fake*-a bereiztea. Iñaki Altuna hiperazelerazio eta *post-truth* garai honek kazetaritzari planteatzen dien erronkez mintzo zen orri hauetan duela bi aste; ez soilik kazetaritzari, baita eraldaketa prozesuek ezinbesteko duten ikuspegi estrategikoaren garapenari eta honek eskatzen duen analisi sakon eta pausatuari ere.

Hari honi tirako diot gaur eta asteari baino Euskal Herriari begiratuko diot zeharka, uste baitut eztabaida politikoa erdigunean beharko lukeen herri-diagnostikoa bazterrean uzten ari garela, hala ezintasun propioengatik nola, esan bezala, berehalakotasunaren esklabo bizi garelako; euskal oasizaleen meritu propioak ahaztu gabe, noski.

Herri honen oinarri materialak ahulak dira hainbat esparrutan. Kulturgintzari erreparatuz, adibidez, globalizazio kulturalaren garaian gaude, estaturik gabe. Euskal kulturaren transmisiorako ez dago bermatuta ekosistema bat. Datu soil bat: eskola publikoan erabiltzen diren testuliburuak %70

Madriren ekoizten dira, Euskal Herriaren batere ikuspeirik gabe. Bestalde, gaur arteko euskalduntze prozesuaren topeak ikusten ari gara, euskararen etorkizuna bermatuta ez dagoelarik. Komunikazio sistema da beste adibide bat: ETBrena agortutako eredu da. Digitalizazioaren garaian erronka itzela da euskal komunikazio sistema bat eratzea. Unibertsitateaz ere hitz egin beharko litzateke, unibertsitate sistema autonomo bat garatzeko ezintasunak zer ondorio kaltegarri sortzen dituen.

Adibideekin jarraituz, garapen eredu propio baten oinarria izan behar duen industriaren erronkak handiak dira etorkizunari begira. Ez badago lidergo publiko inportante bat, ez badago ikuspegi autozentratu bat, eta etengabe ari bagara Espainiarekin konparatzen, Espainiakoaren geroz eta antz handiagoko ehun produktiboa

izango dugu, eta Europako erregio sozialki aurreratuenen arrastoa galduko dugu. Eta lan-harremanen esparru propiorik ez izatearen ondorioez gehiago hitz egin beharko litzateke: Hegoaldeari dagokionez, gure lan-harreman eredu espainola da egitura produktiboa oso bestelakoa denean.

Adibide asko jar daitezke: gizarte dualizazioa, erronka demografikoa, sozioekologikoa, zaintza lanen prekari-zazioa, hezkuntza sistemaren porrota, jatorri eta klase segregazioa gure herri eta auzoetan, eta abar. Jon Sarasuak esan zuen, duela zortzi urte inguru, kontua ez dela botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusten dugun, baizik eta botilak zuloa duela, ura galtzen ari dela. Euskarari buruz ari zen, baina uste dut metafora horrek balio duela herri honen garapenari lotutako esparru askotarako. Azken 60 urteotako herrigintza zikloan aktibatu diren eraldaketa prozesuen inertziak kudeatzen ari ga-

Burujabetzaren beharra ikusi eta sentitu egin behar dute gizarte-sektore zabalek. Burujabetza zergatik behar dugun gehiago eta hobeto azaldu beharko genuke

ra kasurik onenean, eta prozesu horietako asko agortu egin dira. Errentetatik bizi gara, eta herri honi erronka berriak eta inoizko konplexuenak aurkeztu zaizkio XXI. mende globalizatuan.

Ez da katastrofista jaiki naizela gaur. Uste dut badugula lana burujabetzaren diskurtsoa biziki indartzen duen Euskal Herriaren argazki hau urgaineratzen. Geroz eta agerikoagoa izango baita datozen urteetan herri eta gizarte gisa gure etorkizuna bermatzeko egitura burujabetzaren beharko ditugula, autonomismotik burujabetzarako jauzia egin beharko dugula. Baina horretarako burujabetzaren beharra ikusi eta sentitu egin behar dute gizarte-sektore zabalek. Burujabetza zer den eta nola lortzen ahal den azaltzeaz gain, burujabetza zergatik behar dugun gehiago eta hobeto azaldu beharko genuke. •

GORBEIAKO ARTZAINAK

Gorbeiaiko artzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuna, dokumental batean

Gorbeia izena entzutean, mendi baten gailurra etorri ohi zaigu gogora, eta joan den mende hasieran han eraikitako burdinazko gurutze erraldoia. Bada Gorbeiaira joatea 1.482 metroko garaiera horretara igotzea dela uste duenik. Mendigune hori ezagutzen duenak, baina, badaki haren gailur nagusia zapalduta zein zapaldu gabe beste hainbat ton-tor eta hamaika bazter zoragari ikus ditzakeela bertan.

Natur altxor horrek bere baitan altxor kultural ugari gordetzen ditu. Horietako bat, mende askoan garrantzi ikaragarria izan zuen lanbide bat, errotarri hobietako harginena. Aranzadi Zientzia Elkartek, Javi Castroren zuzendaritzapean, ahanzuratik berreskuratu du haren

 **ARTZAINZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Artzaintza tradizionala, mendeetan ardiak eta artzainak zenbait hilabetez mendira lotu izan dituen lanbide gogorra, desagertzeaz dago. Baina bizimodu horrek badu ordezkorik, artzain belaunaldi berriak. «Gorbeiaiko artzainak» dokumentalak bertako artzaintzaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren berri emango du.

lekukotza. GAUR8ko erreportaje batek Gorbeia mendiguneko errotarrien berri eman zuen iaz, Castroren beraren eskutik.

Gorbeian badira Euskal Herriaren historiaren eta kulturaren lekuko diren beste zantzu asko, eta abian dira zenbait ikerketa, hala nola bertako karobien gainekoa edo 36ko gerrako lubaki eta bunkerren gainekoa.

Aitor Azkueta
zeberioztarraren
artalde, Egirinaon. Santi
Yaniz

Joan den ekainean, Gorbeiaiko artzaintzaren nondik norakoen berri emango duen dokumental bat filmatzen ere hasi ziren, “Gorbeiaiko artzainak” izenburukoa, hain zuzen.

GOROBELGO ARTZAINZA

Filma egiteko ideia Gorobel mendilerroko artzaintzaren gaineko dokumental baten fil-

maziotik sortu zen. Joan den martxoan Jose Luis Urrutiaren “Los últimos pastores de Sierra Salvada-Gorobel Mendilerroko azken artzainak” filma estreinatu zuten, Aiara eta Urduñan zehar zabaltzen den mendilerro horretako artzainen jarduerarakosten duena. Inguru horretan oso artzain gutxi daude gaur egun, Bizkaian bakar bat eta Araban zortzi, guztiak ere 60 urtetik gorakoak. Filmak arrakasta handia izan zuen, eta DVD formatuan salgai jartzeko asmoa dute. Ordu eta erdian, mendeetan zehar antzinako lanbide hori gaur egun arte iraunarazi duten artzain horiek eta haien familiak omendu nahi ditu dokumentalak.

Gorobelgo artzaintzaren gaineko filma Enrique Arberas Mendibil biologo aiararraren kezkak bultzatu zuen. Berak eta beste zenbait adituk 5.000 ur-



teko jarduera horren bilakaera azaltzen dute. Ardi latxak, ardi-txakurrak eta otsoak; emakumearen papera; jarduera horren ezaugarriak eta bilakaera; artzaintza desagertzeak eragiten dituen ingurumen-ondorioak; arazo ekonomikoak... horiek guztiak aztertzen ditu dokumentalak, bertako azken artzainen lekukotasuna jasota, jakina.

GOROBELDIK GORBEIARA

“Gorobel Mendilerroko azken artzainak” lanaren harrera ona bigarren proiektu bati ekiteko eragingarri izan zen. Gorbeia-ren gaineko «zerbait» egiteko zain zeuden zenbait lagunek pentsatu zuten dokumental bat horretarako tresna egokia izan zitekeela. Hartara, Amurrioko Aztarna Elkarre Etnografikoak, Luiso Lopezen eta Jesus Angel Santa Cruz elkarteko kideen ideia oinarri, Gorbeia mendiguneko artzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuneko aukerak dokumental batean biltzea proposatu zuten, eta Jose Luis Urrutiak berak hartu zuen bigarren dokumental hori ere egiteko ardura, desagertzeaz dagoen milaka urteko tradizio bat ahanzturan galtzea saihesteko lana osatzeko asmoz.

Euskal Herrian hainbesteko garrantzia izan duen eta oraindik ere baduen jardun horren iragana, oraina eta etorkizuna agertzeko asmoa duen lan horren lehen partea bukatu berri eta bigarrena hastear, Urrutiarekin hitz egin dugu. Pozik ageri da erronka berriari helduta. Hala ere, ondo asko daki aurrekoak baino zailtasun handiagoa duela, alde batetik orain askoz azalera handiagotan filmatu behar duelako. Izan ere, Gorobel mendilerroko artzainen gaineko dokumentala 2.000 hektareako azaleran



Iñaki Lopezen eta Belen Etxebarriaren ustiategia, Etxaguenen (Zigoitia).
Santi Yaniz

egina da, eta Gorbeia-koaren gainekoak 20.000 hektarean hedatzen den jarduera jaso behar du. Eta, beste alde batetik, bigarren dokumental honetan artzaintzaren urteko ziklo osoa jaso nahi dute, paisaia eta ohitura aldaketa guztiak agertuz.

Lehen partea ekainetik abuztura bitartean filmatu zuten, prestaketa lanen ostean, eta oraindik lan handia dute aurre-

tik, datorren urteko apirila arte, gutxienez. Edonola ere, gustura ari da Urrutia, eta parte hartzen duten artzainen laguntza eskertu nahi du, bai haien testigantza, bai beren txaboletan eta etxeetan filmatzen utzi izana.

«GOGORRA ETA TRISTEA»

Artzain horiek, batez ere iraganean hain lanbide gogorraren berri ematean, harekiko atxikimendu handia erakusten dute-

la dio Urrutiak. «Ikaragarria da. Artzain izateaz oso harro agertzen dira. Burura datozkit Jose Mari Olabarri, edo Luis Larrea. Oso urte gogorak gogoratzen dituzte, Land-Rover-rik ez zegonean; jana ez zen falta izaten, baina eskasa zen...». Luis Larrea 80 urteko artzainaren esaldi bat ekarri du hizpide. Artzaintza gogorra den galdetuta, baietz esan zion: «Gogorra, baina batez ere tristea», sentimendu handiz esan ere, Urrutiari «oso barruraino» iritsi zitzaiona. Artzainaren bakardadeaz mintzatu zitzaion Larrea, denbora asko etxetik kanpo eman beharraz. Euri egunetan gogoe-ta egiteko denbora asko izaten omen dute... Urrutiak aitortu du hunkitu egin zela hura entzunda.

Ulertzekoa da lanbide hori, antzinako moduan behintzat, gero eta jarraitzaile gutxiago izan eta desagertzeko bidean izatea. Larreak dioen bezala, gogorra behar du izan bazkaleku

MENDIAN ZAILDUTAKO EKIPO EZAGUNA

Jose Luis Urrutia “Gorbeia-ko artzainak” dokumentalaren gidoiaren, zuzendaritzaren eta muntaketaren arduraduna da. Bilbotar idazle honek harreman estua du Aiaraldearekin: «Oso estua, nire amaren familia Lezamatik dator [Amurrio udalerritik]». Familia du bertan eta berarentzat oso inguru maitea da hura. Bere liburuetan ere erakutsi du lotura hori; izan ere, haren lehen eleberrietako protagonista «el ayalés» da.

Berarekin ekipo teknikoa osatzen

dutenak Gorosabelgo artzaintzaren gaineko dokumentala egin zuten berberak dira: Filmazio, edizio eta postproduktzio arduraduna, Karlos Trijueque, TAOM ekoiztetxekoa; ekoiztetxe berekoa da Josu Torrealday soinu arduradun eta kameralaguntzailea; Txarly Marques JYT kreaKtibus ekoiztetxekoa produktzioaz eta logistikaz arduratzen da, eta argazki finkoa eta dronea Santi Yaniz Aramendiaren ardura dira, erreportaje hau ilustratzen duten argazkiak bezala.



bila ardiak mendian gora eraman eta zenbait hilabetetan, elurteak hastearekin batera etxera itzuli arte, haiekin geratu eta denbora horretan guztian etxoletan bakarrik jan eta lo egiteak... gogorra eta tristea, izan ere.

Larrea orozkoarra da, eta Austigarminen du etxola. Olabarrik, Urigoitiko *Rubioak*, Itxinara eramaten zuen artaldea, eta gaur egun, 82 urterekin, Urigoitiko baserrian jarraitzen du lanean. Enrique Etxebarria zeanuriztarrak artaldea Arrabara igotzen jarraitzen du. Horiez gainera, dokumentalaren lehen partean Bizkai aldeko beste sei artzain elkarrizketatu ditu Urrutiak. Araba aldean jasotako testigantzetako batzuk, honako hauek dira: Sarriako Juanjo Ortiz de Zaraterena, Abezian bizi den Javier Aldamarena, Altube-Zuiako Oñate baserrian bizi den Manu Bilbaorena edo Ametzaga-Zuiako Paula Menoyorena, beste zenbait emakumerenarekin batera, ez baitute etxean geratzen ziren emakumeen papera ere ahaztu.

ORAINA ETA ETORKIZUNA


Azkenik, artzain belaunaldi berrien ordezkarietara ere ahotsea eman die filmak. Izan ere, dokumentalaren helburua Gorbeialdeko artzaintzaren iragana ez ahaztea da, baina batez ere oraina erakutsi eta etorkizuneko aukerak sumatzea. Eta itxaropentsu ageri da filmaren zuzendaria etorkizun horren inguruan.

Badira artzaintzari segida eman dioten gazteak. Ohiko artzaintzari lotuta daudenak oso gutxi dira; hala ere, belaunaldi berri bat dago, Urrutiak dioenez, lanbide horri modu desberdinean heldu diona, eta hori

«Gorobel Mendilerroko azken artzainak» dokumentalak mendeetan zehar lanbide hori gaurdaino iraunarazi duten artzain horiek eta haien familiak omendu nahi zituen

«Gorbeialdeko artzainak» dokumentalak 20.000 hektarean hedatzen den jardueraren eta artzaintzaren urteko ziklo osoa jaso behar ditu, paisaia eta ohitura aldaketa guztiak agertuz

Goian, Maribel Alava eta bere iloba Julen, Zestafeko (Zigoitia) San Pedro auzokoak, Oketa inguruan. Eskuinean, Luis Larrea orozkoarra, Austigarminen. Santi Yaniz



da gakoa. Dokumentalaren zuzendariaren ustez, gaur egun modu tradizionala bideraezina izango litzateke. Artzain zaharrei entzun besterik ez dago: haien sasoian inor ez zen oportetean joaten, ez ziren jai edo zubietan hor zehar joaten. Mendian egoten ziren, bakarrik, eta neguan ibarrera jaisten zirenean beraiek bezala bizi zen jendearekin elkartzeko ziren. Artzain berriek ere gazta egiten dute, esnea saltzen dute, artaldea ikustera igotzen dira, baina ez dute mendian gaurik ematen. Dokumentalean agertzen dira, esate baterako, Iñaki Lopez eta Belen Etxebarria etxaguendarrak, hobekuntza genetikoa ardura nagusi dutenak. Artzain horien ustiatzean filmatu zuten intseminazio artifizialaren prozesua. Axier Urien eta Maribel Alavak Zestafeko (Zigoitia) San Pedro auzoan dute ustiatzea, eta mendira era-

maten dituzte ardiak bazkatze-
ra, baina gaua han igaro beharrean, GPSz kontrolatzen dituzte. Horiez gainera, Zaitetikoko gazte baten kasua nabarmendu du Urrutiak, Iñigo Gracianteparaluzetarena, hain zuzen. Arte Ederrak ikasi eta Alemanian bizi izan ondoren, Zaitegin (Zigoitia) ahuntz ustiatze bat jartzen ari da. Oso ideia modernoa omen du, ekologia zirkuluan oinarritua eta, aisialdiari dago-kionez, «ohiko artzaintzaren esklabotzatik aldentzea». Oso «egitasmo serioa» dela dio. Ekoizpen ekologikoaren aldeko apustua egin du, beste edonor bezala bizitzeko aukera ematen diona, jaiegunei eta aisialdirako denborari uko egin gabe, alegia. Lehenago, Arkautiko Artzain Eskolan egon zen. Horrelako kasuek itxaropena izateko motiboak ematen dituztela uste du dokumentalaren zuzendariak.

LAGUNTZAILE UGARI

Esan bezala, Aztarna Elkarteko Et-nografikoa da proiektuaren sustatzaile eta finantziario iturriak lortzeaz arduratu dena. Urrutiak dioenez, pozik daude alde horretatik. Arabako Foru Aldundia, Gorbeia udalerriak eta gero eta entitate eta jende gehiago konprometitzen hasi dira proiektua mamitu ahala, bai finantzaketan, bai bestelako laguntzetan. Goro-belgo artzaintzaren gaineko bultzatzaile Enrique Arberas da laguntzaile horietako bat, Gorbeia ondo ezagutzen duten beste hainbat lagun bezala, hala nola Luiso Lopez eta Jose Antonio Ganzabal baranbioarrak, Esteban Etxebarria maugarra, Juanxu Uribarren orozkoarra, Gorka Bores zeberioztarra eta Pedro Otegi.

Horien eta beste hainbaten laguntza eskertu nahi du Urrutiak, eta jarraian Baranbio-ko Administrazio Batzarreko presidente Jesus Maria Bernaola aipatu du, artzainekin, batez ere Bizkai aldekoekin, euskaraz egitea erraztu dielako. «Oso hizkera aberatsa dute, esapide ugari, hitanoa erabiltzen dute... eta musikalitate horrekin...». Horregatik erabaki zuen artzainak euskaraz filmatu eta dokumentalean ere bere horretan agertzea. Lagun bizkaitar baten laguntzaz erdarazko azpiztituluak prestatzen ari da. Baina hizkuntz aberastasun hori bere horretan agertu nahi du. «Zoragarria da halako tresna baten izena Zeanuritik Orozkora aldatzea», dio. Beraz, testigantzen benetakotasunari eusteko ez ezik, «gure kultura delako, eta horrelako testigantza mota horiek jende horrekin desagertuko direlako» jaso nahi ditu bere lanean, Euskal Herriko historia eta kulturari



«Maite ditut, maite, gure bazterrak...». Goian, Egiriñao inguruko pagoak. Lerroon ondoan, Dioni Olabarria artzaina Amurrion, «Gorobel Mendilerroko azken artzainak» dokumentalaren filmazioan, eskuinaldean Jose Luis Urrutia ageri dela. Santi Yaniz



«Gogorra, baina batez ere tristea», esan zion Larreak, eta artzainaren bakardadeaz mintzatu zitzaion. Etxetik kanpo, euri egunetan gogoeta egiteko denbora asko izaten omen dute

Belaunaldi berri bat dago lanbideari modu desberdinean heldu diona. Gazta egiten dute, esnea saltzen dute, artaldea ikustera igotzen dira, baina ez dute mendian gaurik ematen

egindako ekarpen txiki gisa. Herri jakituria ikaragarria jasotzen ari dela dio.

Arestian aipatutako Javi Castro Aranzadiko etnografoa ere kolaboratzaile horien artean dago. Urrutiak dioenez, filmazio egun batera agertu zen eta luze gabe gidari lanetan hasi zen Oketa aldean, antzinako erroterriak erakusten. «Hurbil

izan nahi duzun lagun horietakoa da», esan du.

Dokumentalaren bigarren fasea egunotan hastekoa zen, oreinen araldiarekin batera.

Gorbeia mendiguneko paisaia zoragarria gozatzeko ez dago datorren urtera arte itxaron beharrik, baina bai hori ere erakutsiko duen film ezin ja-kingarriago bat ikusteko.




Andoni CANELLADA | FOKU

IKUSMIRA

LEHENGOAN IKUSI NUEN ADISKIDE HORI

Duela bi urte Donostian ikusi nuen, pasieran. Gertu samar nengoenez, «Aupa, Ramon!» esatera nindoan, noizik behin ikusi eta agurtu gabe utzi nahi ez duzun lagun hori bezala. Berehala konturatu nintzen, ordea: «Baina... nora hoa, ez baituk ezagutzen, ze pentsatuko dik!». Beste aktore eta pertsona famatu asko ikusi izan ditut kalean, baina normalean ez zait adiskide bat bezala agurtzeko gogo hori egiten. Ez dakit euskal aktorerik onena den, eta bost axola dit; berari ere bai, nonbait. Irudian hunkituta ageri da. Ez dakit aktorerik onena den, baina aktore ona da, bere paperean sartzen eta pertsonaia saltzen dakiena, aurpegi hunkitua erakusten ohitua. Baina ez dut uste Zinemira saria jasotakoan agertutako hori antzezpena denik. Uste dut badakiela jende askok bere poza partekatu nahi zuela, eta berak ere jende horrekin partekatu nahi zuela. Noiznahi kalean topatzen duen laguna bezala ikusten duen jendearekin. Baina ez izarren distira ez duelako, baizik eta izarren distira ortzian eta berea antzezpenean uzten dakielako. Xabier Izaga Gonzalez

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains that are blowing in the wind. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is serene and slightly melancholic due to the monochromatic blue color scheme.

GAUR8

ireki gure leihoa



EXPRAI

iRRITZIA:

ANTZA,
DENOK DARAMAGU
GURE BAITAN
ENTRENATZAILE
BAT...

... HIRIGINTZA
ZINEGOTZI BAT...

... ETA
EPAILE
BAT

ORAIN, SARE SOZIALEI
ESKER, NIRE HIRU HORIEK
FATXOSO XAMARRAK
EZ OTE DIREN
KEZKATZEN NAU.



Pedal kolpeka

Itzea Urkizu
Arsuaga

Iraila ez da uda luzatu nahia besterik. Errutina, baina gona motza jantzita; langile estresatuaren plazeboa, terraza-zuritotan. Edo, azaroko azterketaldiaren presioa sentitzea, igerilekuan etzanda. Inoiz oximoronaren nazioarteko egunik sortu nahi duenak, bukatzera doan hilabetean egin dezala, arren.

Iraila asmo handiegi edo agenda txiekiegien aroa ere bada, ordea. Iraila aldapa da, aldapa luzea. Igotzaile onenak bizikleta gainean nola, hala heldu ohi diote, askok, iraileko maldari: ikasturtea hasteko grinaz, bidea gozatu, izer-

ditu eta muinora iristeko, tontorrean zer dagoen argiegi ez badaukate ere. Baina, pedalei denak emanda joanagatik, irailari katea ateratzen zaio aldapa hasieran, beti. Betikoa. Tira, Kale Nagusikoa lasterketa maratonianoa da honezkero, eta, iraupen luzeko probetan, denborak bere lekuan jartzen du bakoitza.

Irailak bezalaxe. Bederatzigarrena baita, munduan dagokigun leku horretara bueltatzeko hilabetea: tokatzen zaigun jarrerara, eta tokatzen zaigun egiteko biologikoetara. Eta, parte hartze politiken aroan, badirudi azala

nahikoa gogortu behar zaiola bati, ingurukoek zugatik erabaki nahi dutela irentsi behar izateko. 30ak udan bete berri, emakumea eta ezkondua: hazi bat sabelean, edo irailik ez.

Egia esan, uda amaieran ez nuen uste txoko honetatik aritzea tokatuko zitzaidanik, baina eskerrak irailak horrelakoak ere badituen: ezusteko oasiak, aurreikuspen eta planifikazioen basamortuan. Etorriko dira aldapa berriak, bai, eta lerrootatik saiatuko naiz haiei neurria hartzen, ez dagokidan tokitik batzuetan, eta pedal kolpeka beti. Ikas-turte on! •

Urtaranen arrain-oroimena

Koldo Sagasti

Pasa den astean jakin genuen Gorka Urtaranek debekatu egin duela Okupatu Gasteiz ekimenak urriaren 6rako Gasteizko Alde Zaharrean antolatu duen jaialdia. Jai egun horren asmoa zen hiriko herri mugimendurako erreferente diren lau proiekturen urteurrenak ospatuz beren lana balioestea. Izan ere, aurtun Hala Bedi irratiak, Gaztetxeak, Auzolana pilotalekuak eta Errekaleor auzo okupatuak 35, 30, 10 eta 5 urte bete dituzte, hurrenez hurren. Lau proiektu hauek, garai eta testuinguru ezberdinetan sortuak iza-

ren erabilera ukatu dio antzeko protagonistak dituen herri ekimenari. Auzapezak arrain baten oroimena izango ez balu, gogoratuko luke orduantxe hartu zuela berak maileguan botoen aginduz ez zegokion kargua, neurri handi batean, Gora Gasteiz plataformaren kanpainak eragindako itsasikarak hondora bidali zuelako PPko alkategaiaren kanpaina arrazista. Hauteskunde kiratsa sumatzen da eta udaleko lemaizainak, nonbait, norabidea aldatu du eta eskuinaren kaletan dabil orain arrantzan. Izango al da amua irentsiko duenik? •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Fikzioaren alde

Alfonbra baten azpian mundu oso bat sartzen da. Umetako logelako asteroko garbiketari hautsa, paper apurtuak, galtzerdi galduak eta gozoki-azalak sartzen genituen alfonbrapean. Eta olatuak atzematen genituen gure alfonbra urdinean. Jauzi egingo genuen gainera, botetako lokatza askatu nahi genuenean bezala zanpa-zanpa egingo genuen lur gaineko geruza iletsua, gainean etzango ginen gure gorputz arinegiarekin koskak berdindu nahian eta ustez dena bere lekuan zegoenean gurasoei deituko genien, gela zeinen txukun utzi genuen ikus zezaten. Eta beren begirada zorrotzak gelako zoko bakoitza arakatzen zuen bitartean alfonbran ahaztutako koskaren bat nabaritu usteko genuen; azpiko gozoki-azala mugitzen ari zela irudituko zitzaiagun, hondakinak in-tsektu bilakatzen hasi balira bezala.

Ez dakit zergatik den, baina Donostiako Zinemaldia hasten den bakoitzean akordatzeko naiz umetako alfonbra urdin harekin. Kursaleko moke-ta gorriaren parean ilarak izaten dira; argazkilariak eta autografo ehizan dabil-tzan koadernoak baranda gainean luzatutako besoe-tan. Hain arrotz zitzaiagun zeremonia harekin topo egin genuen lehenengo al-dia etortzen zait burura sar-ri: pelikula bat ikustera etorri eta nola jakin ge-nuen derrigor igaro behar genuela alfonbra gainetik aretora sartu nahi bagenuen. Eta txandal zahar bat jantzita nola geratu ginen, behin be-har-eta, nabarmen.

Urteroko zeremoniak jada halako harriturik sortzen ez badit ere, alfonbra gorriak obsesionatu egiten nau oraindik. Erakustea baino hoberik ez baitu zerbait ez-kutatu nahi duenak. Alfonbra azpian mundu oso bat sar-tzen da, baina alfonbra bukatu, argiak itzali eta pantaila erraldoia pizten denean, beste mundu bat jartzen da mar-txan.

Aste honetan irakurri dut Britainia Handian gurasoen

herenak ipuinetako per-tsonaia maltzurak hau-rrei egindako kontaketa-tik ezabatu egiten dituela. Otsoak, Bizar Urdinak eta sorginak alfonbrapean. Te-lebistari begira aztoratzen ginenean ere «lasai, peli-kula da-eta» esaten zigun aitonak. Bagenekien hain-beste. Baina pelikulek fik-ziotik adina zuten gure emozioek benetakotik. Hainbeste gauza sentitu ditugu bizitzan, lehenen-go, fikzioari esker... Per-tsonaiarik maltzurrenaren azalaren azpiko geruzak miatzen irakatsi digu fik-zioak, ustez laua zen per-tsonaiari ertzak bilatzen, inoiz biziko ez ditugun munduak gure gorputz bar-rutik igarotzen. Aste ho-netan berriz ere pantailara iritsi zaizkigu iazko urria-ren 1eko Kataluniako esko-la atarietako polizien basa-keriak. Ertzainak ikusi ditugu herri-lurak borra kolpeka okupatzen Zubie-tan, festa debekatuak Gas-teizen eta Monbar Hotele-ko heriotzaren ez-kila kolpeen oihartzunak. Al-fonbrapean gorde arren,

errealitateak badaki fikziorik maltzurrena ere ga-inditzen. Eta fikziorik ez bagenu, ez genuke bestelako errealitate bat sor dezakegunik sinetsiko. •



Zer ezkutatzen da alfonbra azpian?

Juan Carlos RUIZ | FOKU

{ koaderno } Joana Garmendia

Gaur zortzi

I am dreaming that I am awake». Horrela hasten da magalean daukadan nobelaren 19. kapitulua. Etorkizun distopiko bati buruz ari da nobela, baina ni iraganera eraman nau. Oso gogoan dut nola behin aitak esaldi horixe bera ekarri zigun, ganbarako eskaileretan behera. Gaztelaniaz esan zigun: «*Hoy he soñado que estaba despierto*». Bagenekien zer ari zitzaigun galdezka: nola esan hori euskaraz? Sarritan egiten zuen gauza bera: itzultzen ari zen lanean korapiloren bat ezin askatu geratzen zenean, bizkor jaisten zituen eskailerak, guri galdetzeko. Egun hartan ama eta biok aurkitu gintuen egongelan.

Orduko hark ez zirudien zailegia, ez zen esaldi aldrebesa, edo hitz potoloz jantzia, beste batzuetan ohi zuen gisan. «Gaur esna nengoela egin dut amets». Ahoz gora esatearekin batera ikusi genion korapiloa. Ez, ez zuen balio, esaldia nahasgarria zen: esan nahi zezakeen esna egonda aritu nintzela ametsetan. Zer egin dudan amets, eta nola egin dudan amets, biak bat izan daitezke euskaraz esandakoan. Inoiz horretaz jabetze-koak geunden.

Joan den astean berdin gertatu zaigu lanean. Lan-kidea artikulatu tekniko bat itzultzen ari zen, eta hantxe zeukan zain korapiloa: «*The least singular concept*». Alegia, «*el concepto menos singular*». Eskailerrak jaitsi beharrik gabe etorri zitzaigun bulegora: nola esaten dugu euskaraz hori?

Saski bateko sagarren artean bat izango da gorriena, baina izango da beste bat... gainerako guztiak hura baino gorriago direna. Gorrien artean, gutxien dena gorria. Eta ez genekien nola esan sagar horri euskaraz. Harrituta geratu ginen gure hizkuntzaren hutsune txiki hori aurkituta. Nola ez gara sekula jabetu? Nola ez gara behin baino gehiagotan geratu hori esan nahi eta ezinda?

Elkarriketa naturalean, komunikazio-egoera arruntetan, beste bide batetik joko genuke euskaraz horrelakoak esateko. Saski batean sagar bat izango da go-

rriena eta beste bat, seguru asko, berdeena, edo horiena, edo gorritzeko gehien falta zaiona. Ez dugu faltan sumatuko gorritasun gutxien duena dela esateko beste modu erdaldun hori, «*la manzana menos roja*». Halaber, ametsi buruz ari garenean, testuinguruak argituko digu bi aukeretatik zein den esan nahi duguna: gaur gauean amets betean aritu naiz, korrika nenbilela egin dut amets, eta baita esna nengoela ere; edo, bestela, gaur egun osoa eman dut burua beste nonbait nenbilkiela, oporretan pentsatzen, esna nengoela ametsetan.

Korapiloak, beste hizkuntza batetik zerbait zuzen-zuzen itzuli nahi dugunean sortzen zaizkigu. Orduan iruditzen zaigu aurkitu diogula hutsunerik gure hizkuntzari, gainerakoan fin-fin funtzionatzen digun horri. Ondotxo ezagutzen dugu irudipen hori elebidunok: nola da posible erdaldunek ez izatea hitzik “koxka” esateko? Edo nola bizi daitezke etxean “goxo” geratuko direla esan ezinda?

Korapiloak, beste hizkuntza batetik zerbait zuzen-zuzen itzuli nahi dugunean sortzen zaizkigu. Orduan iruditzen zaigu aurkitu diogula hutsunerik gure hizkuntzari, gainerakoan fin-fin funtzionatzen digun horri

Beti harritu izan nau, horretaz ari garela, inguruan ditugun erdarek zein izen gutxi duten denbora-kontuek aritzeko. Euskararen aldean gutxi, esan nahi dut. Deskribatu egiten dituzte atzo baino lehen joan zen eguna, bihar eta gero etorriko dena, orain bizi dugun urtea eta honen aurretik iragan zena, eta berdin beste asko. Izenez deitzen diegu guk horiei denei euskaraz, bitan pentsatu gabe.

Hizkuntza bakoitzak ditu bere bereizgarriak, eta ez ote da hori izango bat euskararena. Ondotxo dakite hori astekari honi izena jarri ziotenek, bistan da. •

Emaize sexologia zentroak “Sexualitateak digitalean” izeneko *online* ikastaroa antolatu du, datozen egunetan hasiko dena. Izan ere, oso garbi daukate gaur egun sexu hezkuntza txukun egitekotan, arlo digitalari begiratu behar zaiola derigor. Lehen *offline* gertatzen ziren bizipen asko dagoeneko *online* gertatzen direlako, baita sexualitatearen arloan ere.

Informazio iturri emankorra da sarea eta askotariko ur-zurruak dakartza, onak, txarrak eta oso txarrak. Non edan eta nola edan erakustea da gakoa Lourdes Perez –ikastaroaren zuzendaria– eta Raul Marcos –irakasleetako bat– sexologo-
goen ustez.

Sexualitateak digitalean izenburua duen «online» ikastaroa abiatzear zarete. Zein da helburua?

[Raul Marcos] Heziketa sexuala egiteko orduan alor berri bat sortu da: alor digitala. Hain dago presente eta hain da garrantzitsua, ezin dela sexu heziketa landu mundu digitala kontuan hartu gabe. Ikastaroaren lehen helburua hori da: sexu hezkuntza txukun eta serio lantzekotan, arlo digitala barnebildu behar duela konturatztea. Horrez gain, formakuntza digitala ez da hainbeste konexioez eta teknologiaz hitz egitea, pertsonen buruz hitz egitea baizik. Batzuetan teknologia ordenagailuak konektatuta dauden toki bat bezala irudikatzen dugu, eta, berez, pertsonak konektatuta dauden toki bat da. Lehen maila analogikoan egiten genituen gauza asko orain maila digitalean egiten ditugu. *Offline* bizitza-

ren eta *online* bizitzaren artean dagoen harreman estuaz konturatztea da beste erronka.

Eta, batez ere, teknologiak eskaintzen dizkigun aukeren gainean jarri nahi dugu fokua. Teknologia berrien inguruko formakuntzan, arreta

arriskueta, debekuetan, beldurrean... jartzeko joera dago. Ez da formakuntza digitala egiteko biderik onena, ezta sexu heziketa egiteko ere. Denbora askoan akats hori egin dela uste dut: hezkuntza sexuala prebentziotik eta arriskueta abiatu izan da.

«Batzuetan teknologia ordenagailuak konektatuta dauden toki bat bezala irudikatzen dugu, eta, berez, pertsonak konektatuta dauden toki bat da»

Sexu hezkuntza arriskutik baino plazeretik egiteko proposamena da, eta, gainera, sare sozialen errealitatea presente edukita. Txilinbuelta zaila dirudi.

[Lourdes Perez] Apustu garrantzitsua da zalantzarik gabe. Hezitzaileekin eta gurasoe-



«Internetek denbora eta espazioa birrindu eta egoera berriak sortu ditu, baina, funtsean, arazo horiek lehen ere hor zeuden»

kin lan egiten dugunean, askotan aipatzen digute “ez dutela kontrolatzen”, mundu digitala arrotza zaiela eta horrek larritu egiten ditu. Guk horri buelta ematen diogu, ez da hain garrantzitsua baliabideak ez menderatzea, garrantzitsuena zure seme-alabei helarazi nahi diezun mezua da. Adibidez, kalean bakarrik ibiltzen hasi baino lehen zebra-bideak nola gurutzatu erakusten diegu, semaforoak begiratzen... erre-minta batzuk eskaintzen dizkiegu kalean bakarrik seguru samar ibil daitezen. Ba teknologiarekin, berdin, tresnak eskaini behar dizkiegu, tresna sozialak, jendearekin harremantzeko erremintak. Eta denbora eskaini behar diegu, beren zalantzak entzun eta horien inguruan hausnartu.

Mundu digitalak arazo berriak ekarri dituela esaten da askotan, baina sexualitatean ere. Horrela al da?

[R. M.] Hori gako oso garrantzitsua dela uste dut. Internetek eta aro digitalak arazo berriak eta arrisku berriak ekarri dituela dirudien arren, ez da egia. Lehenagoko arazo eta arrisku berdinak dira, baina agertoki berri batean.

Ez genuke ahaztu behar aro digitalak, hain justu, hori ekarri duela: espazio berri bat, *online* espazioa. Eta bertan *offline* egiten ditugun ia gauza guztiak egin ditzakegu. Batean eta bestean pertsona berdinak izan arren, ez dugu berdin jokatzeko. *Online* espazioan berehalakotasun ikaragarria dago, Internetek denbora eta espazioa birrindu egin ditu. Denbora traba handi bat bihurtu zaigu, dena nahi dugu orain, berehala. Eta besteekin harremantzeko orduan, ligatzeko orduan, berdin.

Baina harreman horietan sortzen diren arazoak lehen ziren berdinak dira, gure izateko moduarekin lotuta daudelako. Internetek denbora eta espazioa birrindu ditu eta egoera berri batzuk sortu ditu, baina, funtsean, arazo horiek lehen ere hor zeuden.

Arazoa da komunikabide askotan Interneten inguruan egiten den irakurketa oso muturrekoa eta alarmista dela eta, noski, egunero-egunero albiste ezkor horiek jasotzen ari diren hezitzaileak eta gurasoak kezkatuta egotea normala da. Kezka horren aurrean, maiz debekura jotzen da eta horrek, epe luzean, ez du ondorio onik ekartzen. Adibidez, gure alaba igerilekuan itotzeko beldurrez bizi bagara, bi aukera ditugu: lehena, igerilekuan sartzea debekatzea, eta, bigarrena, igeri egiten erakustea. Gu, zalantzarik gabe, igeri egiten erakustearen aldekoak gara. Debekua erraza eta merkea da, baina ez da eraginkorra.

Sarean denetarik topa daiteke, txarrenetik onenera kabitzen den guztia. Sexualitatea modu sanoan bizitzeko tresnak eskaintzen al ditu?

[R. M.] Hori, noski, pertsonok egiten dugun erabileraren araberakoa da. Egia da Internetek asko azkartu dituela prozesuak, eta, bertan erabiltzen diren seduzitzeko estrategiak, taberna batean erabiltzen direnak baino askoz azkarragoak direla, adibidez. Eta azkartasun horretan, maiz, akatsak egiten dira.

Hala ere, Interneten gertatzen diren akats horiek edo sortzen diren korapilo horiek zerikusi handia daukate egun oso nabarmena den fenomeno batekin: gailu teknologikoen

ematen diguten segurtasun sententzio ikaragarria.

Sare sozial baten bitartez norbaitekin ligatzen ari bazara, zure etxean, zure konfort gunean, segurtasun sentipen faltsua sortzen da. Eta, ondorioz, zure bizitza intimoaren gehiegizko esposizio bat eman daiteke. Ez naiz ari bakarrik eduki erotikoez, bestelako datuez ere ari naiz. Esposizio erotikoa bezain arriskutsua izan daiteke esposizio emozionala; zure arazoak kontatzea, etxeko arazoak kontatzea... gailu teknologikoen ematen diguten segurtasun sententzio faltsu hori oso arriskutsua da.

Horri, gainera, beste fenomeno nabarmen bat gehitu behar zaio: denok uste dugu publiko bat dugula sarean eta hori elikatu egin behar dugula, maiz gure bizitza pertsonala erabiliz.

Bi fenomeno horien ondorioz, maiz sarean saretik kanpo inoiz izango ez genituzkeen jarrerak eta jokabideak izaten ditugu.

Intimitatea ulertzeko eta bizitzeko modua aldatu egin da akaso?

[R. M.] Erabat. Gure aitona-amonen garaian baziren inoiz jendaurrean aipatzen ez ziren gaiak. Hori aldatu egin da hurrengo belaunaldietan eta orain aldaketa horrek beste buelta bat egin duela esango nuke.

Adibidez, duela urte batzuk *#Aftersex* traola zabaldu zen; orgasmo bat eduki eta berehala, edo, orgasmoa edukitzen ari zen unean bertan, jendeak argazkiak atera eta sarean zintzilikatzen zituen etiketa horrekin. Horri buruz nerabeekin hitz egiten dudanean, ez dute uste une hori intimoa denik, bizitza pribatuaren

LOURDES PEREZ ETA RAUL MARCOS

EMAIZE ZENTROKO SEXOLOGOAK

Hain digitala den sasoian, sexu hezkuntzak ezin du aparte utzi sarean gertatzen dena, kontatzen dena, bizitzen dena, maiz saretik kanpokoak bezainbeste pisu duelako. Ikuskera hori jasotzen eta zabaltzen saiatzen ari dira Emaize sexologia zentrotik.

Amagoia Mujika Telleria

«‘Online’ espazioan berehalakotasun ikaragarria dago, Internetek denbora eta espazioa birrindu egin ditu. Denbora traba handi bat bihurtu zaigu, dena nahi dugu orain, berehala. Eta besteekin harremantzeko orduan, ligatzeko orduan, berdin»



Endika PORTILLA | FOKU

parte denik. Aldaketa bat egon da intimoa zer den eta publikoa zer den ulertzeko dugun moduan. Hor salto bat gertatu da. Niretzat intimoak diren gauzak gaur egungo nerabeen begietara ez dira intimoak, publikoak baizik. Aldaketa bortitza gertatu da

“Extimidad” kontzeptua bogan dago gaur egun. Horren arabera, pertsona batek sekulako beharra dauka munduari nor den, zer pentsatzen duen, zer bazkalduko duen, zer harreman sexual mota dituen... kontatzeko. Horren arabera, intimitateak balioa dauka publiko egiten denean bakarrik. Ondorioz, bizitza pribatua baliotsua bihurtzen da sarean iragartzen duzunean. Fenomeno horrek bere arriskuak izan ditzake, batez ere pertsona bezala garatzen ari zaren ga-

raian. Nerabezaroa, berez, bizitzako une oso berezia da, dena berehala eta azkar nahi izaten dugu eta hausnarketa, maiz, ez da gertatzen une egokian. Teknologia berriek ere denbora desagerrarazteko joera dute, berehalakotasunaren mundua dira. Horregatik, nerabeak eta telefono mugikorrek elkartzea batuketa oso indartsua izaten da.

[L.P.] Bada beste alderdi oso garrantzitsu bat. Batzuetan zenbait jokabide ditugu, horiek izan ditzaketen ondorioetan pentsatu gabe. Bultzatu behar dugun aurretiazko hausnarketa da. Sarean zerbait zintzilikatzen dugunean, horrek izan ditzakeen ondorioen jakitun izan behar dugu. Gure formakuntzetan hori nabarmentzen saiatzen gara. Ez gara debe-

kuaren aldekoak, baina gure jokabideek izan ditzaketen ondorioen jakitun izan behar dugu. Hori da erronka.

Sexualitatea erakusleihenari begira bizitzea, norbere beharretatik aparte, ez al da arriskutsu samarra?

[L.P.] Zalantzarik gabe. Indarra ez da hainbeste jartzen norbere beharretan, norbere nahietan, baizik eta kanpora begira saldu behar den horretan. Eta sare sozialetan saltzen den guztia hain perfektua denez, pentsa daiteke sexualitatea beti horrela izaten dela, ideala. Horrek bere arriskuak ditu.

[R.M.] Sare sozialak zerbait badira, norberak bere burua saltzen duen erakusleiho handi bat dira. Normala denez, bakoitzak erakusleihoan bere

onena jartzen du, bere aurpegi onena. Arazoa sortzen da batek, bere etxetik, besteen erakusleiho perfektuak bere dendaostearekin konparatzen dituenean. Hori maila askotan gertatzen da.

Pentsa, helduok maiz sentipen horiek izaten baditugu, zer sentitu behar du nerabe batek bere kontaktuen erakusleiho perfektuak bere biltegi itsusiarekin konparatzen dituenean? Denok galtzaile gara konparaketa horretan.

[L.P.] Horregatik da garrantzitsua erakusleiho perfektu horiek begiratzen ikastea. Hezitzaileekin eta gurasoekin bereziki lantzen dugu hori, nerabeei ikusarazi behar diegu erakusleiho horien atzean dendaosteak ere badaudela, gauza itsusiagoak gordetzen



dituzten biltegiak. Eta pertsona guztiek ditugula horiek.

Pornografia ere hor dago. Hori aldatu al du aro digitalak?

[R.M.] Internetek ez du pornografia aldatu. Pornografia Internetez baliatu da inoiz ez bezala zabaltzeko. Izan ere, pornografia apenas aldatu den azken hamarkadetan. Dagoen pornografia txarrena kontsumitzen dugu, gainera. Baina pornografiak beti asmatu du teknologia erabiltzen bere zabalkunderako eta orain ere horixe bera egin du Internetekin.

Arazoa da gaur egun inork bilatzen ez duen tokietara ere iristen dela pornografia. Bi kontsumitzaile mota daude; batzuk kontsumitzaile aktibok dira, pornografia bilatzen dutenak, eta, besteak, kontsumitzaile pasiboak dira, bilatu ez arren topatzen dutenak. Pertsona horrek ez badauka

konparatzeko elementurik, ez baldin badauki pornografia erotikaren zientzia fikzioa dela, ez bada kontziente martetarren filma bat ikusten ari dela, pentsatzen du ikusten ari dena benetakoa dela eta martetar horiekin konparatzen hasten da. Eta, noski, pentsatzen du berak ere martetar horiek bezala jokatu behar duela. Hori da arazoa.

Harrigarria da, nerabeekin pornografiak hitz egiten dugunean, ez dutela pentsatzen film horietan mozketak eta edizioa dagoenik ere. Pentsatzen dute dena erreala dela.

[L.P.] Gauzek bere denbora behar dute, baina espazio birtualean dena oso azkar pasatzen da, film batean bezala. Guk indar handia jartzen dugu denboraren kontuan. Dena azkar eta berehala gertatzen da. Horren parean, pixkanaka-pixkanaka joatea, une guztiak goza-

tzea, besteari denbora eskaintzea... hori guztia aldarrikatu behar dugu. Geratzea, hausnartzea, begiratzea, gozatzea... hori guztia aldarrikatu behar dugu.

Patxada falta zaio aro digitalari.

[R.M.] Aro digitalak denbora birrindu egin du, desagerrazteraino. Konexioak eta loturak nahastu egiten dira. Loturak topatu nahian dabil jende asko sarean eta konexioak baino ez ditu topatzen. Izan ere, loturek denbora behar dute. Eta badirudi denbora eskaintzea, denbora galtzea dela.

Youtubeko tutorialen garaia da. Baita sexualitatean ere?

[R.M.] Baietz esango nuke. Deustuko Unibertsitateak ikerketa bat egin du gazteek zalantzak dituztenean nora jotzen duten ikusteko. Wikipediara jotzen dutela pentsa ge-

nezakeen arren, ez da horrela, Youtubeko tutorialetara jotzen dute. Horren arrazoi nagusia, nerabeen arabera, Youtuben erreproduzio kopurua zehazten dela da, bideo hori zenbat pertsonak ikusi duten jakin dezaketela. Horrek fidagarritasuna ematen die. Informazioaren aroan, askotariko informazioa daukagu eskura: ona, txarra eta oso txarra. Informazio uholde horren aurrean, garrantzitsua da irizpideak izatea.

Hezitzaileek eta gurasoek atea irekita edukitzea garrantzitsua da, ezta?

[L.P.]. Zalantzarik gabe. Entzutea, beren kezken berri izatea... garrantzitsua da. Jasotzen duten informazio uholde horretan ezinbestekoa da iragazkiak jartzea eta hori helduon lana da. Guk erakutsi behar diegu zein iturritan edan dezaketen ura eta zeinetan ez.

«Sare sozial baten bitartez norbaitekin ligatzen ari bazara, zure etxean, zure konfort gunean, segurtasun sentipen faltsua sortzen da. Eta, ondorioz, zure bizitza intimoaren gehiegizko esposizio bat eman daiteke. Esposizio erotikoa bezain arriskutsua izan daiteke esposizio emozionala»





> Euskararik gabeko bizitza



Monicak, 43 urteko bilbotarrak, Twitterreko hari batean kontatu du –@ilargiblue– euskararekin izan duen bizipena. «Bizitza erdia lapurtu didate euskara kendu didatenean», aitortu du.



Amona euskaldunak eta aitona espainolak zituela eta gurasoek erdarazko hezkuntza pribatuaren aldeko hautua egin zutela dio. «Haurra nintzela ez nintzen espainolarekin identifikatuta sentitzen,

nahiz eta nire ama hizkuntza izan. Era berean, ez nuen ulertzen nolatan ez nekien ezer partekatzen nuen beste mundu horri buruz; ulertu ez arren oso nire sentitzen nuen mundu hori».

Euskaltegian hasi orduko etorri zen ezusteko ederra. «Euskara ulertzen hasi orduko kultura bat, izateko modu bat, mundu ikuskera bat deskubritu nituen, erabat nireak sentitzen nituenak. Euskarak, espero gabe, herri oso bat oparitu zidan! Euskara da euskaldun egiten gaituena».

Bilbotarraren hitzetan, euskarak eman diona sekulakoa da, «lan aukerak baino askoz gehiago». «Etengabeko ikaskuntza bat da, nire bizitzako esperientziarik onenetakoa».

Euskarara hurbildu ahala, gure herriaren historia lehen eskutik jasotzeko aukera izan duela nabarmentzen du, «inork itzulpena egin beharrik izan gabe».

«Ustez nire herriaz nekiena egia erdiak eta gezur osoak zirela deskubritu dut euskarari esker», aitortu du.



> Eraso sexista fisioterapeuta bati

Azkoitiko fisioterapeuta batek joan den astean bere kontsultan sufritutako eraso sexista salatatu du sare sozialetan. Salaketaren arabera, gizonetzko bezero bat sartu zen bere kontsultan eta ukituak egitera behartu nahi izan zuen. «Bulegoan sartu zenean, nigana gerturatzen hasi zen. Ni urrundu egin nintzen, ohatila prestatu behar



nuela-eta. Sesioa nola joango zen azaldu eta kamiseta kentzeko eskatu nion. Bera, baina, erabat biluztu zen». Ukituak egin zizkiola eta hitzez ere eraso zio-la salatatu du emakumeak. Ertzaintzarengana jo zuen salaketa egitera, baina horrelako salaketek ez dutela aurrera egiten esan zioten. Horregatik erabili ditu sare sozialak.



> Txantxafabrika

Abuztu hasieratik, Donostiako Antigua auzoko Txantxarreka gaztetxea gune seguru bihurtu dute hirian dauden migratzaile-entzat. Janaria, arropa edota euskara klaseak eskaintzen dizkiete bertan bat egin duten herritar eta elkarteek, Gurutze Gorriak eta Udalak hiru egunez hartu eta gero kalean uzten dituen migratzaileei.

Instituzioek etorkinak era egokian artatzeko eskatuz hain-



bat ekintza egin dituzte asteotan; prentsaurrekoak, elkarretaratzeak eta manifestazioak, besteak beste. Instituzioen jarreraren aldaketarik ikusten ez dutenez, baina, protesta kanta hau egitea erabaki dute. Antigua Rebolution Zaunk System taldeak, Donostiako Txantxarreka gaztetxeak eta bertatik igarotzen diren migratzaileek elkarlanean sortu dute “Txantxafabrika” protesta abestia.

> «Käffka», sexu-identitatea gelara

Nerabeak aniztasun afektibo-sexualean hezteko xedea du Kamikaz Kolektiboaren azken antzezlanak. Ikastetxeetan eta bestelako guneetan eskaini nahi dute, baina lana abian jartzeko diru beharrean dira. Hartara, antzezlan finantzatzeko, *matchfunding* bat abiatu dute. Hau da, *crowdfunding* bat, zein jendeak jartzen duena bezainbeste jarriko duen babesle instituzional batek, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura arloak. Hilabetez egin



daitezke ekarpenak, honako bidean: goteo.cc/kaffkaeu.

Sexu aniztasuna eta lesbianismoa abiapuntu, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako antzezlan da “Käffka” eta Gehitu, Kamikaz Kolektiboa eta Ortzadar LGBTren artean martxan jarritako proiektua da. Kamikaz Kolektiboa antzerki-konpainiaren obra hau bost aktorek antzeztuko dute: Edurne Azkarate, Amaia Irazabal, Iraia Elias, Oier Guillian eta Mikel Ibarguren.



> Aniztasun sexuala, hiru minutuan

Chrysallis elkarteak hiru minutuko bideo pedagogiko batean bildu ditu sexu aniztasuna ulertu ahal izateko zutabe zenbait.

«Zer da identitate sexuala? Ni zein naizen. Zer da orientazio sexuala? Zeinek erakartzen nauen. Zer da genero adierazpena? Nola agertzen naizen besteen aurrean».



Oso galdera interesgarriak jartzen ditu mahaiaren gainean bideoak, transexualitate egoeran dauden pertsonen sentipenak ulertzeko lagungarriak. Igarotze sozialaz ere mintzatzen da, jaiotzatik beste sexu bati lotu dituzten arren, beren identitate sozialarekin bat eginda bizitzeko hautua egiten duten une horretaz.



Ezker-eskuin, Ainhoa Abinzano, Gipuzkoako Gorren Elkarteko kidea, eta Rosa Maria Rodriguez, elkarte horretako lehendakaria.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

infraganti

AINHOA ABINZANO ETA ROSA MARIA RODRIGUEZ

Ainhoa Abinzano eta Rosa Maria Rodriguez gorrak dira. Beren egunerokoa aldapan gora bizi dute entzuten dutenentzat diseinatutako mundu honetan. Bihar Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna dela-eta, traba horiek denak jarri nahi dituzte mahai gainean. Ez dute entzuten eta, gainera, ez dira entzunak.

Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna da bihar, iraileko azken igandean. Aitzakia aproposa pertsona gorren errealtateari begiratzeko. Halaxe uste dute Gipuzkoako Gorren Elkartean

eta helburu horrekin elkartu da GAUR8 Rosa Maria Rodriguezekin –elkarteko lehendakaria– eta Ainhoa Abinzanorekin –elkarteko bazkidea–. «Komunikaziorako langak eta oztopoak gainditu nahi ditugu», laburbildu du nazioarteko egunaren mamia Rodriguezek.

Erraza begitandu daiteke, baina ez da. Egunerokoan topatu ohi dituzten traben zerrenda luzea da. «Erakunde publikoetan, erietxeetan, epaitegietan, ikastetxeetan, psikologo batengana jotzen dugunean, adineko pertsonak dauden egoitzetan... asko kezkatzen

gaituzten egoerak ikusten ditugu egunero. Adibidez, gure bazkideren bat adineko egoitza batera eramaten dutenean, asko tristetzen eta kezkatzen gara. Zer egin behar du? Ezin du inorekin harremanetan jarri, ez lagunekin kartetan aritu... bakardadera eta isolamendura kondenatuta dago eta hori aldatu beharra dago. Zeinu hizkuntza dakien norbaitek egon beharko luke profesionalen artean eta, askotan, ez da horrela izaten», hasi du azalpena Abinzanok.

Berak urte eta erdi zituenean konturatu ziren gorra zela. «Gurasoek esaten dute jaio nintzenean ez nintzela gorra, gerora gortu nintzela. Ez dakit, nire haurrak jaio zirenean proba desberdinak egin zizkidaten eta jaiotzez gorra nintzela esan zidaten. Akaso, genetikoan izan zitekeela esan zidaten. Baina nire bi seme-alabak en-

tzuleak dira». Rosa Maria Rodriguezen kasuan ere ez dago garbi gorrieraren jatorria. «Nire diagnostikoa ere berantiarra izan zen».

Diagnostikoaren partea, behintzat, dezente hobetu dela uste dute. «Gaur egun askoz lehenago eta hobeto ematen da diagnostikoa. Gurasoak gorra baldin badira, proba desberdinak egiten zaizkie haurrei. Eta gurasoak entzuleak diren kasuetan ere protokolo bat dago gorria goiz detektatzeko. Alderdi horretatik, gauzak hobetu egin dira».

Pertsona gor askok zeinu hizkuntza darabilte komunikaziorako. Bada, baina, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren aldeko hautua egiten duenik ere. Edo biak. «Gizarteak ahoz-kotasunaren alde egiten du, hori da bere lehentasuna. Baina zeinu hizkuntzak askoz modu egokiagoan asetzen ditu pertsona gorraren beharrak. Hori frogatuta dago. Pentsatzen da zeinu hizkuntza ikasten badu, ez duela ahozko eta idatzizko hizkuntza barnerratu. Eta ez da horrela. Zeinu hizkuntza oinarri garrantzitsua da gerora jakintza desberdinak eskuratzeko, ahozkoa eta idatzizkoa barne. Gurasoak eta seme-alabak gorrak diren kasuetan zalantza gutxi izaten da, normalean zeinu hizkuntzara jotzen dute. Zalantzak izaten dira gurasoak entzuleak eta seme-alabak gorrak diren kasuetan, hor erabakiak hartu behar izaten dira», azaldu du Abinzanok. Ohiko hizkuntza eta zeinu hizkuntza «bi erregistro desberdin» direla nabarmendu du, «egitura oso desberdina dute eta ezin dira nahastu».

Integrazioaz asko hitz egiten da, baina existitzen al da benetan? «Benetako integrazioa

AINHOA
ABINZANO

«Erietxeko hitzorduekin erotuta gaude. Hitzordu bat eskatzeko edo aldatzeko, telefonoz deitu beharra dago. Zergatik? Beti norbaiten mende gaude. Asko kostatzen zaie posta elektronikoarekin funtzionatzea»



ROSA MARIA
RODRIGUEZ

«Pertsona gorrok antsietate eta estres handia bizi dugu orokorrean. Etengabe sekulako ariketa egiten dugu gure ingurua ulertzeko. Beti gaude beldurrez, gauzak ez ote ditugun gaizki ulertu, mezua zuzen jaso ote dugun...»



oso zaila da eta lan handia dago egiteko. Gure lehentasun bat da», esan du Abinzanok.

Eskolan, adibidez, traba handiak ikusten ditu. «Ideala litzateke gorra den haurrak zeinu hizkuntzan aritzen den irakaslea izatea. Haur horrek eredu bat behar du. Ulertzen dut murrizketen garai honetan neurri horiek oso zailak direla, baina kontuan hartu beharko litzateke». Bere kasuan, seme-alabak entzuleak diren arren, Integratioko eskola batera eramaten ditu, pertsona gorren beharrak oso presente dituen zentro batera. «Niretzat garrantzitsua da seme-alabek pertsona gorrak dauden mundu bat erabat normala dela ulertzea. Haien irakasleek ere normaltasunez ikusten naute eta gurasoek, berdin. Nire seme-alabek normaltasunez bizi dute gurasoak gorrak izatea eta hori da helburua», esan du Abinzanok.

«Gaur egun sekulako garrantzia ematen zaio hizkuntzak jakiteari. Eta zeinu hizkuntzari? Guk aldarrikatzen

dugu balioa eman behar zaiola eta curriculumean jarri behar dela», gehitu du Rodriguezek.

TEKNOLOGIA GEHIAGO BALIATU

Egunerokoan askotariko trabak topatzen ditu pertsona gor batek, entzuten duenak imajinatu ere egiten ez dituenak. Teknologia berriekin traba batzuk gainditu diren arren, beste askok hor diraute, eta teknologiarekin konpontzeko modukoak direla uste dute. «Telebistan azpitoluak falta dira eta daudenak beti ez dira egokiak. Oso azkarrak dira eta maiz hizkuntza korapilatsua erabiltzen dute. Pertsona gorrok hizkuntza sinplea eta zuzena behar dugu, erraz ulertzeko modukoa. Hori ez da kontuan hartzen», esan du Rodriguezek.

Horrez gain, oraindik gestio asko telefonoz egin beharra dago. «Erietxeko hitzorduekin erotuta gaude. Galdutzat ematen dugun borroka bat da. Hitzordu bat eskatzeko edo aldatzeko, telefonoz deitu beharra

dago. Zergatik? Beti senideren baten mende gaude hitzorduak eskatzeko edo aldatzeko. Asko kostatzen zaie posta elektronikoarekin funtzionatzea. Eta oso deserosoa da beti norbaiten laguntza behar izatea. Finean, gure osasuna intimoa da eta akaso ez dugu nahi senide horrek zer dugun jakitea», esan du Abinzanok. «Seguru nago teknologiak moduak eskaintzen dituela mezu bat zeinu-hizkuntzan bidaltzeko, adibidez. Badira ahozko eta idatzizko hizkuntza kontrolatzen ez duten adinekoak. Borondatea izanez gero, gauza asko hobetu daitezke».

Rodriguezek gaineratu duenez, «pertsona gorrok antsietate eta estres handia bizi dugu orokorrean. Etengabe sekulako ariketa egiten dugu gure ingurua ulertzeko. Beti gaude beldurrez, gauzak ez ote ditugun gaizki ulertu, mezua zuzen jaso ote dugun... Horrek guztiak estutasun emozional handia sortzen digu».

Ainhoa Abinzanok oso egoera berezia kontatu du. «Nire semea etxean jaio zen, zailtasunak izan nituelako. Bizilagun batzuk etorri ziren laguntzera anbulantzia etorri bitartean. Denak joan-etorrian ikusten nituen, urduri, elkarrekin hizketan, baina nik ez neukan ideiarik zer pasatzen ari zen. Pentsa. Erdi zorabiatuta nengoen eta ez nekien nire semea bizirik edo hilda jaio zen ere. Oso egoera traumatikoa izan zen».

Hain muturreko egoerara joan beharrik izan gabe, duela gutxi gimnasio batean eman zuen izena. «Monitoreari esan nion gorra nintzela, baina azalpenak garbi ematea nahikoa zela. Estralurtarra banintz bezala hartzen ninduen, arraro begiratzen zidan, arraro hitz egin, gainontzeko guztiak niri begira geratzen ziren... ariketak azaltzeko orduan, maiz bizkarra ematen zidan eta ez nintzen enteratzen... Azkenean utzi egin nuen, eromen hutsa zelako».

Lan munduan panorama ez da hobe. «Pertsona gor asko enplegu zentro berezietara bideratzen dituzte, desgaitasunak dituzten pertsonekin. Gure traba bakarra ez dugula entzuten da, gainontzeko gaitasun guztiak primeran ditugu. Ohiko lan munduan sartzeko aukera gehiago izan beharko genituzke», nabarmendu du Rodriguezek.

«Gorren mundua erabat ezezaguna da entzuten dutenen komunitatearentzat. Gu ere komunitate horren parte gara, baina iruditzen zait guk gehiago ezagutzen dugula entzuleen mundua alderantziz baino. Inguratzen gaituen mundua erabat entzuten duten pertsonen begira antolatua dago eta guk hizkuntza hori menderatu behar dugu. Aldrebes, baina, muga asko jartzen dira. Badi-rudi zeinu hizkuntza ikastea ezinezkoa dela, oso-oso zaila dela. Ez da egia, borondate kontua da», bukatu du.

Amagoia Mujika Telleria



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Klitoriaren ablazio psikologikoa

Egun, emakumeok sufritzen dugun sexu eskubideen urraketa larrietako bat kanpoko genitalen mutilazioa da. Hau da, klitoria moztea.

Giza eskubideen aurkako eraso bortitz hau, ez dugu soilik Afrikako eta Asiako herrialde batzuetan sufritzen, mundu osoko herrialdeetan baizik. Izan ere, kanpoko genital femeninoen ablazio fisikoaz aparte, ablazio psikologiko eta sinbolikoa ere existitzen da eta Euskal Herrian burutzen da. Beraz, praktika globalizatu bat da.

Historian zehar, sexualitate femeninoa onartu ez den bitartean, emakumeen patua ama izatea izan da. Ondorioz, genital femeninoak zulo eta inkubagailu gisa irudikatu izan dira. Gaur egun, nahiz eta aintzat hartu, ugalketarako erabiltzen ez diren emakumeen genitalen atalek ezezagun izaten jarraitzen dute. Hau da, gutxiago baloratu eta ikertu dira, ikusezinak bihurtu arte. Horrez gain, emakumeok eman dugun jauzi ebolutibo izugarri garrantzitsua ere ezkutuan mantendu da; eboluzioari esker emakumeak ugaltzea gozamenetik banantzea lortu dugun ugaztun eme bakarrak garela, hain zuzen. Beste ugaztun emeek, protoklitori bezalako bat daukate bagina barruan eta kopulatzen dutenean gozatzen dute. Gure kasuan, ordea, klitoriak kanpora migratu du eta aluaren goiko partean kokatu da. Labur-labur esanda, soilik gozamenarako diseinatuta dugun organoa kanpoko genitaletan dago.

Aluaren gaineko ezjakintasuna arazo soziala da eta, beste behin, batez ere, emakumeak galtzen ateratzen gara. Gure gorputzeko atal garrantzitsu bat ez ezagutzea, nahiz

eta ohikoa izan, ez da batere naturala. Neskek eta mutilek, aldi berean, 2-3 urterekin kanpoko genitalak deskubritzen dituzte. Fardela kentzen zaie-nean, ordura arte ukitu ezin izan dutena miatzen hasten dira eta nesken kasuan, bat-batean gozamina aurkitzen dute eta masturbatzen hasten dira. Mutilak, berriz, kanpoko genitalak topatu arren, masturbazioarekin beranduago hasten dira, psikomotrizitate finagoa dutenean, alegia. Beraz, txiki- txikitatik, modu naturalean, gure aluarekin erlazionatzen gara eta masturbazio praktikarekin hasten lehenak gara. Baina, gizarte patriarkalentzat emakumeen ahalduzko sexuala arriskutsua denez, herrialde guztietan indarkeria sinbolikoa eta kulturala praktikatzen dira.

Indarkeria kultural basati mota bat klitoriaren ablazio fisikoa da. Baina neskak txikitan masturbatzen garenean, jarrera eta mezu negatiboak su-

fritzea, hala nola “zikinak” garela leporatzea ere, gure jokabidea zentsuratzeko helburuarekin, indarkeria da. Hau da, klitoriaren ablazio psikologikoa emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa da. Honen ondorioz, nahiz eta txikitan lagun minak izatera heldu, azkenean, modu artifizialean gure aluaren arerio bihurtzen gara.

Garapen psikosexualean mozketak bat pairatzen dugu, botere propioan galera sufritzen dugu eta, kasu gehiegitan, gure aluarekin deseroso sentitzen gara. Muturreko kasuetan, nazka sentitzera irits gaitezke. Nazka eta gaitzespena gizarte osora hedatu dira eta horiek gelditzeko eta aldatzeko modu bakarra sexu heziketa da. Funtsean, ablazio mota guztiak desagerrarazteko, aluaren ezagutza orokorrean sozializatzea eta neskei konkretuki nolakoa den eta zertarako balio duen irakastea premiazkoa da. •



Azkenean, modu artifizialean gure aluaren arerio bihurtzen gara.

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



GABRIEL ARESTI ZORNOTZAN, XABIER GEREÑOREN KAMERA AURREAN, 1968. URTEAN

1968an Euskaltzaindiaren 50. urteurrena ospatu zen. Urte hartako abenduaren 3an, urrian Arantzazun eus-kara batuaren oinarriak definitzeko egindako biltzarra-ren ondoren, Euskaltzaindiak bilera bat egin zuen Du-rangon, Disko eta Liburu Azoka zabalik zegoela-eta. Bilera hartara, besteak beste, Gabriel Aresti eta Xabier Gereño joan ziren. Abenduaren 3 hura egun euritsua izan zen, eta, Durangora joan baino lehen, akademiako bi kideak Zornotzan geratu ziren kafe bat hartzeko, urriko biltzarraz hitz egiteko. Xabier Gereñok, halaber, Gabriel Arestiri elkarrizketa egin zion, 1968ko aben-duaren 11n "Zeruko Argia" aldizkarian argitaratu zute-na. Zornotzan egindako irudia ere, elkarrizketa hura eta artikulua hau ilustratzen dituen, Xabier Gereñok egin zuen, eta, beharbada, Arestiren irudirik ezezagu-nenetakoa da. Aresti 1957tik izan zen euskaltzain oso, akademian 26 urterekin sartu ostean.

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



ESLOVENIA

Aintzakotzat hartu beharreko helmuga

Eslovenia begi onekin ikusten dute euskaldun askok, batez ere Euskal Herria herrialde subirano izan dadin desio dutenek. Turismo destino legez, ordea, ez dago gure lehentasunen artean. Baina polita, eroso eta aberatsa da gure herriaren antz handia daukan herrialde hau.

Eta gainera: Guadalupe, Antilla Txikien handiena • Marrakexek ezkutuan duen aldera bidaiatzea • Italiako pizzarik onenak...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

